

Año LIII. urtea
131 - 2021
Urtarrila-ekaina
Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Mahats hitzaren etimologia

Julen Manterola, Markel Lizasoain

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LIII. urtea - N.º 131. zk. - 2021

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Gulibarko aldaeraren inguruan (eta 3 – Txulapaingo azpialdaera: Elbarrena)
Koldo Artola 9

Garibairen errefrauetako *diago*: euskara, zakurrak eta ustekabeko beste
etimologia batzuk
Borja Ariztimuño López 47

Emakumearen irudia Axularren *Geron*
Enara San Juan Manso 61

Arrangoitzeko euskararen bilakaera Kanadara igorri gutun pribatu baten argitan
Maitena Duhalde de Serra 89

Dialekto-berdintzeari Lezamatik begira: adinaren, generoaren eta hizkuntz
jarrerren garrantziaz
Azler García-Palomino 113

Mahats hitzaren etimologia
Julen Manterola, Markel Lizasoain 147

Ohar etimologikoa: *golde*
José Ignacio Hualde 179

ERRESEINAK / RESEÑAS / REVIEWS

Censura y Literatura. Memorias contestadas
Nerea Eizagirre 195

*El Vocabulario Pomier. Edición y estudio de un diccionario manuscrito
anónimo euskera-español*
Nerea Fernández de Gobeo Díaz de Durana 199

*Gipuzkoa antzinaroan: hizkuntzak eta eremu linguistikoak onomastikaren
argitan*
Jose M. Vallejo 205

Sumario / Aurkibidea

VARIA

Gipuzkoa in antiquity: languages and linguistic areas in the light of onomastics

Luis Mari Zaldúa Etxabe

213

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales /

Rules for the submission of originals

237

Mahats hitzaren etimologia

La etimología de *mahats* ‘uva’

The etymology of *mahats* ‘grape’

Julen Manterola

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

julen.manterola@ehu.eus

<http://orcid.org/0000-0002-2381-183X>

Markel Lizasoain

Irunarri Zuzenketak

irunarritik@gmail.com

<https://orcid.org/0000-0001-8354-9397>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv131.6>

Julen Manterola ikerketa talde hauetako partaide da: Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduriko *Hizkuntzalaritza historikoa eta euskararen historia* proiektua [= GIC.IT1344-19], Espainiako *Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak* diruz lagunduriko *Monumenta Linguae Vasconum (V)* proiektua [= FFI2016-76032-P] eta UPV/EHUren UFI11/14 proiektua. Egileok bi ebaluatzaile anonimoren oharrak eskertu nahi ditugu, artikulu honen azken emaitza hobetu baitute; bertan iraun dukeen huts oro gure ardurapekoa da.

Jasotze data: 2021/04/02. Behin-behineko onartze data: 2021/05/05. Behin betiko onartze data: 2021/05/19.

LABURPENA

Lan honetan *mahats* hitzaren etimologia eman dugu. Argudiatu dugu Erdi Aroko mai-legu bat duela abiaburu, erromantzezko *banasta*, eta euskararen barrenean sortu dela, berranalisiz. Horretarako, hitzak Erdi Aroko toponimian duen presentzia urria azalerratu dugu, eta nabarmendu erromantzezko *banasta*-k nolako bizitasuna zukeen mahastizaintzan garai horretan berean. Hitza erasan duten aldaketa fonetikoek kronologiak zedarrituta, erakutsi dugu kronologia horiek bat egiten dutela ardogintzak euskal eremuan izandako Erdi Aroko orokortzearekin. Bide horretatik, argitu dugu zein neurritan islatzen duten ardogintzari loturiko euskal hitzen etimologiek gure lurraldeetako ardogintzaren beraren historia.

Gako hitzak: *mahats*; etimologia; kronologia; ardogintza; Erdi Aroa.

RESUMEN

En este artículo proponemos una etimología para *mahats* ‘uva’. Argumentamos que tiene su origen en un préstamo romance medieval, *banasta*, y que su creación se debe a un proceso interno por reanálisis. En favor de esta hipótesis, recordamos que *mahats* apenas se documenta en época medieval, y que en ese mismo periodo el romance *banasta* sería de uso común en el ámbito de la viticultura. Establecemos las cronologías de los cambios fonéticos que afectan a *mahats*, y mostramos que se compadecen bien con la generalización de la vinicultura en el área vasca medieval. Discutimos finalmente en qué medida reflejan la historia de la vinicultura local las etimologías de palabras vascas relacionadas con ella.

Palabras clave: *mahats* ‘uva’; etimología; cronología; viticultura; Edad Media.

ABSTRACT

The present article offers an etymology for *mahats* ‘grape’. We argue that a medieval loanword, Romance *banasta* ‘pannier’, is at its origin, and that it was created through reanalysis within the language. We highlight two facts in support of this: the Basque word is virtually absent from medieval documents, and in that same historical period Romance *banasta* was presumably common in the sphere of viticulture. We also discuss the chronologies of the phonetic changes that affected the word, arguing that they fit the medieval spread of wine-making in the Basque area. Finally, we discuss to what extent the etymologies of the Basque words that are related to wine-making reflect its history in the area.

Keywords: *mahats* ‘grape’; etymology; chronology; wine-making; Middle Ages.

1. SARRERA. 2. MAHATS-EN ETIMOLOGIA PREZIENTIFIKOAK. 3. EUSKAL DATUAK. 4. MITXELENAREN BERRERAIKETA KLASIKOA ETA BESTE. 5. HITZAREN ETIMOLOGIA SAKONAGORAKO OINARRIAK. 5.1. *Mahats* hitzaren antzinatasuna: Erdi Aroko lekukotasunak. 5.2. Hizkuntza erromantzeetako datuak: *banasta* ‘mahatsetarako saski’. 5.3. *Banasta*-ren jatorria eta zabalkundea. 6. GURE PROPOSAMENA: MAHATS-EN ETIMOLOGIA. 7. MAILEGUAREN ETA HARI DAGOZKION GERTAKARIEN KRONOLOGIA. 7.1. Bokalarteko sudurkaria. 7.2. Txistukaria. 7.3. Maileguaren sartze gunea. 7.4. Kronologia proposamena. 7.5. *Banasta* eta *basta* euskaraz. 8. BLEVINSEN PROPOSAMEN ETIMOLOGIKOA GUREAREN ARGITAN. 9. MAHASTIZAINZA ETA ARDOGINTZA EUSKAL EREMUAN: OHAR HISTORIKO-ETIMOLOGIKO BAT. 9.1. *Ardo* hitzaren etimologiaz. 9.2. *Muztio*-ren mailegaketaren garaiak ohar bat. 9.3. Antzinatea. 9.4. Erdi Aroa. 9.5. Erdi Aroko mahastizaintza eta hitzaren mailegaketa. 10. AZKEN GOGOETA: «UVA VASCONICE». 11. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Maileguetatik atera genezakeen informazioa ez da oraindik agortu, eta bada haien azterketan sakontzerik (Mitxelena, 1974). Gaur-gaurkoz, eginkizun dago maileguak eurak identifikatzeaz gain haietan deskribatzen ditugun gertakari fonetikoetako kronologia zehatzak modu sistematikoan ezartzea.

Mahats ondare zaharrekotzat hartzeko izan diren usteak alde batera utzirik, artikulu honetan proposatu dugu mailegu batean duela jatorria, nahiz eta formaren eta esanahiaren aldetik euskararen barrenean sortua izan. Hain zuzen, Erdi Aroan mahastizaintzak eta ardogintzak izan zuten hedatzearen eta finkatzearen testuinguruan kokatu behar da mailegatze hori. Horretaz gain, saiatu gara *mahats*-en eboluzioan ikusten ditugun bilakaera fonetikoaren kronologiak zehazten. Arestian aipaturiko ardogintzaren garapenaren errealitate historikoarekin ere bat egiten dute kronologia horiek.

Hitz gehiago mailegu gisa identifikatzen baditugu (Ariztimuño & Egurtzegi, 2011; Lakarra, 2005), aurrez ezagutzen ditugunen errolda zehatza osatu eta dagozkien gertakari fonetiko guztiak sailkatu, protoerromantze edo erromantze garaiko zein euskararen barreneko, hurbilago egongo gara aingura kronologikoz hornitutako fonetika historiko batetik. Hala, maileguetatik harago, ondare zaharreko lexikoaren eboluzioa hobeki ulertzen lagunduko digu horrek. Langintza horretan ale bat da gure artikulu hau.

Honela antolatu dugu gure lana: ondoko atalean (§ 2), *mahats*-i eman zaizkion etimologiaren zerrenda egin dugu. Jarraian, euskal datuen aurkezpena egin dugu (§ 3) eta Mitxelena berreraiketa klasikoa gogorarazi (§ 4). Etimologia berrirako bidean, oinarri

sakonagoak (Erdi Aroko euskal datuak, hizkuntza erromantzeetakoak) ezarri ditugu (§ 5). Ondoko atalean (§ 6) azaldu dugu xeheki gure proposamen etimologikoa, eta hartatik eratortzen diren gertakari fonetikoaren kronologia ere zehazten saiatu gara (§ 7); gure hipotesiaren ondorio moduan, *mahats*-en etimologiaz izan diren beste zenbait proposamen kritikatu ditugu (§ 8). Azkenik, gure etimologiak errealitate historikoarekin lotzeko saioa ere egin dugu (§ 9), Antzinatean eta Erdi Aroan mahatsak eta ardogintzak euskal lurraldeetan zukeen presentzia aztertuz.

2. MAHATS-EN ETIMOLOGIA PREZIENTIFIKOAK

Artikulu honetan *mahats* hitzaren etimologia berri bat proposatu baitugu, egoki da, sarrera modura, gainbegiratua ematea abiapuntu gisa hartuko dugun Mitxelenaren berberaiketaren aurreko proposamenei.

Agud eta Tovarren (1988-1994) hiztegian (s. v. *maasti* eta *maats*) bildutakoei begira jarritz, haiek jaso ditugu, jatorrizkoetan berriro begiratuz informazioak osatu asmoz:

- a) Charenceyk (1869, 23. or.) etimologia ariarrak bilatzen dizkio *mahats*-i, *mats* jatorrizkotzat jo ondotik eta *mahats* «par redoublement» azalduz: sanskritoizko *mattâ* «vin, liqueur» eta *mada*, *madya* «boisson fermentée» (*mad* «lætari» erroari omen dagozkio) ematen ditu konparagai, eta haiei iliriar *mas* «vin nouveau», anglo-saxoizko *madu* «hidromel» eta grezierazko *μέθυ* lotu behar zaizkie; bukaerako *-ts* eratorpen atzizkitzat du, eta ‘edari hartzituaren zuhaitz’ esanahia ondorioztatzen du *mahats*-entzat. Hamarkada batzuk geroago (Charencey, 1908, 664. or.), «qui est comme une baie» esanahia ematen dio *mahats*-i, eta *-ts* (edo *x*) bukaerakoak antzekotasuna edo konparazioa adierazten omen du; *v* > *m* aldaketaren adibide moduan ematen du, gaztelaniazko *Va.ya*-tik eratorriz.
- b) Campionek (1898, 388. or.), Charenceyren proposamenak ausartegitza joz, *makats* ikusten du *mahats*-en jatorrian. Agian *makatz* du gogoan (‘udare txiki’, ‘gerezi mota’, ‘sagar txiki’, ‘gurbearen fruitu’...)? Pérezen arabera (2003, 244. or.), sagardoaren moduko edari bat egiten zen gurbearen fruituekin. Bestela, cf. *makatz* ‘(mahats-)landare’ (EHHA § 1887).
- c) Giacominek (1891, 14. or.) koptoerazko *smah* ‘mahats-mulko’-rekin konparatzen du.
- d) Castro Guisadolak (1944, 192. or.) *v* > *m* aldaketaren adibideen artean kokatzen du latinezko *vitis* ‘mahatsondo’-ren eta euskarazko *mats*-en arteko harremana.
- e) Boudak (1949, 330. or.) *ma-ts* analizatzen du, Charenceyren antzera «dédoublement de voyelle» baten bidez azalduz *ma(h)ats*. Kuri hizkuntza lezgiarreko *tch’ere* ‘mahasti’ aipatzen du, eta haren erroa *tch’(e)* izan daitekeela dio, zeina georgierazko *ma-tch’-ari* ‘murtio (← mahatseko)’ hitzekoarekin konparatzen duen. Ikusi orobat Bouda eta Baumgartl (1955).

- f) Löpelmannek (s. v. *mahaş-*) **baka-tse* ‘baia-zuhaiška’ («Beerenstrauch») ematen du oinarrizko forma moduan, latinezko *bāca* ‘baia’-ren eta beste hainbaten oinarrian legokeena (tartean, trazierazko *Bákchos*, zeina mahatsondoaren, ardoaren jainkoa baita). Abiapuntua egiptoerazko¹ *m³ḥ* ‘mahatsondo’-n ikusten du, zeina ezin den, hala dio Löpelmannek, hititerazko *maḥlaš* ‘mahatsondo’-tik bereizi.

Kronologikoki prezientifiko ez bada ere, hementxe sailkatu dugu Blevinsen proposamena ere, itxurazko sofistikazioak gorabehera, izpirituz horien pareko dela uste baitugu:

- g) Blevinsen ustez (2018, 49. or.), **ma* ‘fruta’ eta *ats* (< *arats*, *arrats* ‘ilun, kolore ilun’) dira euskal hitzaren osagaiak. Lehenagoko aurkezpen batean (Blevins & Egurtzegi, 2013), autoreek **mha* ikusten dute hitzaren jatorrian, itxuraz jatorrizko /mh/ baten fisioz².

Argi dago hipotesi hauek ez dutela taxuzko oinarririk. Hauetan guztietan, hurbilketaz zintzo bakarra Campionena da, gure ustez, euskararen barrenetik abiarazten baitu azalpena, eta ez baitu asmatzen oinarririk gabeko hitz zatiketarik ez eta dokumentatu gabeko esanahirik; horietako hainbatetan, gainera, urruneko eta euskararekiko ahaideatasuna frogatua ez duten hizkuntzak hartzen dira konparagai (koptoera, georgiera...).

3. EUSKAL DATUAK

Garai historikoan eta aldaerak aldaera, euskalki guztietan dokumentatzen da *mahats* hitza, eta ‘mahats’ eta ‘mahatsondo’ ditu esanahi nagusiak (OEH s. v.). Ohikoa den bezala, forma hasperendunak iparraldeko autoreengan aurkitzen ditugu, eta hegoaldean, berriz, *maats* eta *mats*; azken hau ia bakarra da autore nafarren artean. Badira, han-hemenka, bestelako aldaera dialektalak, hala nola *marats* eta *magats*, baita *ma(a)tz* ere, mendebaldean, espero zitekeen moduan.

Etimologiaren ikuspegitik, ikusiko dugun bezala, arestiko horiek baino esanguratsuagoa da zubererazko *māhāts* sudurkariduna (Larrasquet, 1939, 176. or.). Beste bi motatako aldaerak ere izan litezke esanguratsu, baldin errealitate fonetiko jakin bat ordezkaturiko balute:

- a) Aldaera lepokaridunak: *mahatz* baizik ez darabil Pouvreaux eta Asto *Laster-rak*-en behin ageri da, *mahats*-en beste adibideen ondoan, eta Baztango XVIII. mendeko testu batean *matz* dugu. Tartasek *Arima*-n <(t)z> darabil *mahatsarno*-rentzat, baina <(t)x> *Onsa*-n.

1 Badirudi Löpelmannen *äg.* laburdurarekin nahasi egin direla Agud eta Tovar, «egear» ulertuz.

2 Berez, beren lanean deskribatzen dituzten fisio ustez erregularrak herskari ahostun hasperendunekin gertatzen omen dira.

Bizkaierazko eta gipuzkerazko testuetan ere badira, baina hizkera horietan txis-tukarien neutralizazioa ere badugu.

- b) Bukaeran igurzkaria duten aldaerek aski hedadura zabala dute, itxuraz behintzat: OEHk *mahas*, *maas* eta *mas* aldaerak dakartza, baina datuok kontuz aztertze-koak iruditzen zaizkigu. Larramendik (1745) *matsá* dakar *uva* sarreran (baita hitzaurrean ere, § XXI), baina *machar* sarreran «es de el bascuence *machatu*, que es lo mismo, y se dixo de *mas mats* uva, y de *cheatu*»; hortxe baizik ez dakar *mas*, ikusi dugunaren arabera, izan ere, goraxeagoko *machaca* sarrerapean, esaterako, «y viene de *macha*, y la terminacion *ca*, y significa golpeado à manera de la uva» dakar. Maurice Harrietek bizk. eta gip. markekin dakar *mas*, eta *mahas* ere badakar. Itxura guztien arabera, elkarketako formak dira, eta hala baieztatzen digu OEHko arduradun Gabriel Frailek ere³.

Lhandek (1926), berriz, lap. eta bnaf. markekin dakar *mas*, *mahas*-en aldaera gisa eta jarraian eratorriak zerrendatzen dituela (-*golko*, -*kondar*, -*molko*, -*pats*); *mahas* bera *mahats*-en aldaera moduan aurkezten du (orobat *maas*), eta ondotik eratorri zenbait ematen ditu; *maats* ere badakar. Hauek guztiak ikusita, duda egi-ten dugu, *m(a)(h)as*-ik benetan baden, ala eratorrietatik ondorioztatu duen Lhandek; izan ere, ez du, artikularekin, *mahasa* edo *ma(a)sa* moduko adibiderik. *Euskal Klasikoen Corpusaren* (EKC) arakatzailak ere ez digu erantzun esan- guraturik ematen *masa*, *mahasa* eta *maasa* bilaketak eginda⁴. Badirudi adibide fidagarri bakarra Garrüzeko *maás* dugula (EHHA § 1883), baina *xórimaháts* ere badago bertan (EHHA § 1902).

Azentuari dagokionez, zubererazko *máhāts* dakar Mitxelenak ere (1954b, 129., 146. or.), erronkarierazko *mats* monoptongatuaren eta sudurkarigabearen ondoan. Getxon eta Lekeition, *matz*, *matza* dugu (Hualde & Bilbao, 1992, 104. or.; Hualde, Elordietza & Elordietza, 1994, 275. or.), Urduliz aldean ere *matz-a* (Gilisasti, 2003, 177. or.), eta Goizuetan *máts*, prosodiaren arabera doinua aldatzen duena (Lujanbio, 2013/2018, 31. or.). Erabat aldaera monoptongatu eta silaba bakarrekoak baitira, ez dugu azentu markatuaren aztarnarik adibide hauetan, eta zubereraz ere hizkerari dagokion azentu paroxitono erregularra dugu.

4. MITXELENAREN BERRERAIKETA KLASIKOA ETA BESTE

Bokalarteko hasperenaz, bokal sudurkariez eta hitz-amaierako neutralizazio gorabe- herez duela 70 urte zekitena gogoan hartuz, Mitxelenak (1950a, 196. or.) **bana(t)s* aitzin-forma proposatzen du, eta hori da gaur egun onartu ohi den berreraiketa. For- ma horretatik azaltzen dira, erabat modu erregularrean, bokalarteko hasperena eta

3 OEHren hurrengo edizioetan gehituko dute zehaztapan hau. Gabriel Fraileri eta Ane Loidiri eskertzen diegu zenbait datu ziurtatu izana.

4 OEHk dakarren Azkueren *maas* eratorrietakoa baizik ez da, Azkuek berak hiztegian dioenaren arabera.

zubererazko bokal sudurkariak: **bana(t)s* > **mana(t)s* > **maña(t)s* > *māhāts* > *maats* > *mats*. Aspaldi ezarri zuen Mitxelenak (1950a, 196. or., 1950b), Schuchardt, Bouda eta besteren aurka, jatorrizkoak zirela hasperena eta ondorioz tinbre bereko bi bokalak ere; lehentasun etimologikoa zutela, alegia, *mahats* bezalako formek *mats* formen aldean. Argigarria da maileguk ematen diguten lekukotasuna: lat. *anate* > eusk. **ahāte* > *āhāte* > *aate* > *ate*, lat. (*h*)*onore* > eusk. **ohōre* > *ōhōre* (zub. *ūhūre*) > *oore*, etab. Hauetan denetan latinezko etimoan dugu bi bokalen jatorrizkotasun bermea (*a-a*, *o-o*...). Hasperen sudurkarirako, ik. Hualde (1993, 294.-295. or.).

Bada hitzaren beste etimologia proposamen modernorik, izan ere, Orpustanek (2006, 11.-12. or.), *Minhondo* eta *Minaberry* moduko toponimoez ari dela, horietan dagokeen *miña* ‘mahasti’-tik (< lat. *vinea*, dioenez) eratorri nahi baitu *mahats*, honelatsu: *miña*-ri -*tze* atzizkia gehituta, *minatze* genuke, eta honi -*doi* atzizkia lotuta, **minaztoi*; hortik, **minaztoi* > **mihaztoi* (cf. *Miaztoy*), asimilazioz **mahaztoi*, eta, ondorioz, **mahaz*. Nabarmenak ditu arazoak, besteak beste *i-a* bokalen asimilazioarena, igurzkariaren lepokari > apikari aldaketarena eta -*ñ*- > -*n*- > -*h*- bilakaerarena. Nolanahi ere, ohar garrantzitsua egiten du, nabarmentzen baitu *mahats* ez dela dokumentatzen Erdi Aroan.

5. HITZAREN ETIMOLOGIA SAKONAGORAKO OINARRIAK

Artikulu honetan, Mitxelenaren berreraiketa klasikotik harago jo dugu, proposatuz mailegu jatorria duela *mahats*-ek, eta erromantzezko *banasta* ‘(mahats-)saski’-rekin lotu behar dela. Proposamen etimologiko horren oinarriak ezarri ditugu atal honetan: lehenik, Erdi Aroan euskal hitzaren adibiderik ez dagoela azaldu dugu (§ 5.1) eta ondoren erromantzezko *banasta* ‘(mahats-)saski’ horren gorabeherak aletu ditugu (§ 5.2).

5.1. Mahats hitzaren antzintasuna: Erdi Aroko lekukotasunak

Garai historikoan euskalki guztietan dokumentatzen bada ere, bada datu deigarri bat *mahats* hitza aztergai hartzen dugunean: Erdi Aroko lekukoetan, toponimian, ez da ia inon dokumentatzen. Aro horretan, *ardantze* dugu ‘mahasti’ adierazteko, cf. Nafarroan *uineam que apellatur Bazterreco Ardancea de Eça* (*Collrach* 1164)⁵, mendebaldean *Ardança* (*ArchZumai* 1344), etab.; gaur Nafarroako bizpahiru herritan baizik ez da jaso *ardantze* (EHHA § 1884), eta *mahasti* da nagusi.

Orpustanek 1551ko *Mahastoy* bat dakar, toponimiako *mahats*-en lehendabiziko adibide gisa. Adibide zaharragorik bada, baina guk ere ezin izan dugu Erdi Aro beteko lekukotasunik aurkitu: *Mastierreca* (*ArchBergIII* 1482) eta «torre de *Maaspe*» (*ArchDebaII* 1483) dira 1500 baino lehenagoko bakarrak gure corpusean; Bergarakoan, itxuraz toponimo bera da «el arroyo de *Mahastierreca*» (*ArchBergII* 1507), berantiarragoa izanagatik itxura arkaikoagoko *mahas*-dakarrena. Horien ondokoak dira «la biña llamada *Amandreamastia*» (*ArchBizkI* 1510, Lekeitio), *Catelina de Maasti* (*PadrLeq* 1510-1556),

5 Erdi Aroko bildumen laburduretarako, ik. EHHE.

Catelina de Maastia (*PadrLeq* 1510-1556) eta «otra peça llamada *Mastiederrasoro*» (*ArchAspar* 1520). Ez dugu argi *mahats*-en adibidetzat hartu behar den «elgueras de *Maastabide*» (*ArchDebaII* 1482). Bide batez esan dezagun, *mahasti*-ren adibideak aski eremu murriztekoak dira (Orpustanen 1551ko *Mahastoy* alde batera utzita), *ardantzel ardentza*-ren hedadurarekin alderatzen baditugu.

Erabakigarriak izan gabe ere –hautu lexiko jakin baten ondorio ere izan zitezkeen toponimoon arteko aldeak–, egia da datu hauek ez dutela *mahats* hitzaren antzinatasunaren aldeko bermerik ekartzen.

5.2. Hizkuntza erromantzetako datuak: *banasta* ‘mahatsetarako saski’

Euskal eremu inguruko hizkuntza guztietan dokumentatzen da *banasta* ‘saski’, aldaerak aldaera: gaskoiz, okzitaniaraz, katalanez, aragoieraz, gaztelaniaz eta frantsesez. Hauek dira erreferentzia-hiztegi zenbaitetan aurki ditzakegun sarrerak (lehendabiziko adiera ematen dugu bakarrik, gehiagorik baldin bada):

- a) Bearnesez: Lespy & Raymond (1887) s. v. *banastre*, «manne, long panier».
- b) Gaskoiz: Palay (1980) s. v. *banaste*, *banastre*, «Manne, long panier; cacolet».
- c) Aragoieraz: Aragonarion *banasto* jasotzen da Somontanosen eta Ribagorzan, eta «espuerta, esportón» esanahia ematen zaio.
- d) Katalanez: DCVB s. v. *banasta* o *banastra*, «Espèce de cove de vimens, més gros i alt que els coves ordinaris (Ross., Conflent, Balaguer, Ll., Calasseit, Val., Pego, Novelda)».
- d) Okzitaniaraz: Alibert (1966) s. v. *banasta*, «Benne, corbeille ; panier de bât ; hotte, comporte ; coffre ; nigaud, sot. Var. *banastra*, *barasta*».
- e) Gaztelaniaz: DLE s. v. *banasta*, «Cesto grande formado de mimbres o listas de madera delgadas y entretejidas».
- f) Frantsesez: *Trésor de la Langue Française*-k (TLF) eta *Dictionnaire de l'Académie Française*-k (DAF) ez dakarte *banaste* sarrerarik –ik. jarraian FEW–, baina sareko Larousse hiztegiak hauxe dakar: «*banaste*, n. f. Dans *le midi de la France*, grand panier en osier, muni de deux anses» (etzana gurea).

Aurreratu bezala, ‘saski handi’ da *banasta*-ren esanahia; jarraian hiztegi historiko eta etimologikoetan ikusiko dugunez, maiz ageri da mahatsa biltzeko saski gisa.

5.2.1. Banasta *Galorromanian*

Wartburgek, ‘saski’ adierapean (FEW 1, 328a, BENNA III, 1), frantses zaharreko *banast(r)e* dakar, «sorte de panier» esanahiarekin, baita okzitaniara zaharreko *banasta* ere, «grande corbeille d’osier» esanahiarekin. Horien ondotik, Galorromaniako

hainbat eta hainbat datu biltzen ditu, hitzaren aldaera ugarien berri emanez, horrekin batera hitzak izendatzen duen objektuaren erabilera ñabarrak ere aletuta: *banate*, *banasto*, *banastro*, *benasto*, *benâte*, *banastre* eta beste hainbat. Maiz ageri da esanahizko zehaztapen bat, saski motaren berri ematen duena: astoaren bizkarrean txalma edo arbalda modura ezartzen zen saski bikoitza zen.

Eskualdearen eta beharren arabera, denetarikoz gauzak garraiatzeko tresna moduan ageri da deskribatuta: simaurra, fruituak, gatza, etab. Betiere arestian aipaturiko ‘saski’ adierapean, hitzaren eratorri bat, erromantzezko *-on* atzizki handigarriarekin, guri interesatzen zaizkigun erabileren lekukoa da: XVI. mende hasierako frantsesez *banaston* «corbillon où l'on met le raisin» dugu, 1700 inguruan *benaton* dugu Borgoinan, «panier à mettre le vendange» esanahiarekin, eta bada Dijonen *benâton* «panier sans anse pour la vendange».

Baina bada datu interesgarri gehiagorik ‘ontzi’ adierapean (FEW 1, 328a, BENNA III, 4): eratorpen atzizkirik batere gabe, hitza bere horretan hartuta, cf. Grenoble inguruko *banâta*, *bânâta*, *banata* eta *benâta*, «vaisseau de bois qui sert pour la vendange» esanahi argigarriarekin.

5.2.2. Banasta Iberorromanian

Gaztelaniaz, 1499koa da hitzaren lehendabiziko adibidea, Corominas eta Pascualen arabera (DCECH 1, 484b-485a), baina haren *embanastar* eratorriaren lehenagoko adibide bat ere badakarte, 1475eko datarekin. Eta Aragoin, are lehenagoko *banasto* ere dokumentatzen da, 1330ekoa.

CORDEn 1600 aurreko adibideak bilatuta, 1300ekoa ateratzen zaigu adibiderik zaharrena, Cuenca aldekoa («toda mercadura que el bofon en *banasta* al cuello trayere»), eta geroago honelako adibideak aurkitzen ditugu: XVI. mendearen bukaera aldera, «*banastas* de melones» (~1587) eta «*banastas* de fruta» (1596) aurki daitezke, besteak beste. Badugu hitza mahatsarekin lotzen duen adibiderik ere gaztelaniaz: XVII. mende hasierako autore den Salas Barbadilloren *La peregrinación sabia* obran, «*banasta* de uvas» aurki dezakegu. Akademia espainolaren hiztegiaren arabera (NTLLE 1780, s. v. *banasta*), «sirve para transportar frutas y otras cosas».

Katalanez, 1298koa da hitzaren lehendabiziko adibidea, DCECHren beraren arabera; Lliterako katalanez jasotako «un *banastro* de mañçanes» baten berri ere ematen du. Katalanaren hiztegian ez zuen hitz hau jaso Corominesek.

5.3. Banasta-ren jatorria eta zabalkundea

Wartburgek (FEW 1, 328b-329a) ematen duen eztabaida etimologikoaren arabera, *benna* ‘bagoi’ hitz zeltikoan du jatorria *banast(r)a* erromantzeak. Espero izatekoa denez, gogoeta etimologikoek hitzaren bukaera eta bokalismoa azaldu nahi dute: Meyer-Lübkeren ustez (betiere Wartburgek dakarren eztabaidaren arabera), zeltikoan bertan gertaturikoa da *benna* → *banast(r)a* eratorpena; Wartburgek, ordea, eratorpen zeltiko horren arazo formal eta semantikoen berri ematen digu eta, jarraian, atzizkiztea latindar erara eginda (*mentastrum*, *palliastrum*, *falcastrum* eta halakoen eredura)

esanahizko xehetasunak hobeki azaldu litezkeela argitzen du. Bide horretatik, azken buruan, Stormen hipotesiaren alde egiten du, zeinaren ustez latinezko *canistrum*, *canastron*⁶ ‘zumezko saski’-ren eraginez sortu den *benna*-tik *banastra*; aukera honek, atzizkiaz gain, lehen silabako bokalismoa ere azalduko luke. Are, esaten digu Wartburgek, pentsa liteke *canastron* izan dela berez *banast(r)a*-ren oinarria, eta bera aldatu zela *benna*-ren eraginez.

Wartburgek ez du zehazten *banast(r)a*-ren sorreraren leihokronologikorik, baina aipatzen du *benna*-ren lehen dokumentazioa VIII. mendekoa dela. Zehaztapen interesgarriak egiten ditu jarraian *benna*-ren beraren esanahiaz: dioenez, ez dago zalantzarik VIII. menderako bereiziak eta ñabartuak zituela adierak, eta erromantzezko *benna*-rentzat ‘ibilgailu mota’ baino gehiago oinarritzko esanahi gisa ‘zumitzez edo adaxkaz egindako bagoi-saski, koltza’ hartu behar dela; izan ere, *benna* beste garraio-tresna edo bagoietarik bereizten zuena zumitzezko edo adaxkazko bilbadura baitzen, haren barnealdearen itxitura funtzioa egiten zuena.

Bestalde, gaskoiz ere *banaste* dugu, bokalarteko sudurkariaren galerarik gabe⁷. Honek ere hitzaren izaera erlatiboki berantiar baten alde egiten du: izan ere, Chambonek eta Greubek (2002, 477.-478. eta 487.-489. or.) onartzen duten kronologiaren arabera, gaskoiz gertaturiko galera horrek gehien-gehienez VII. mendera arte iraun zuen, eta badira bokalarteko sudurkaria duten hitzak, berantiaragoztat jo behar dituztenak.

Galorromaniatik zabalduz hitza da *benna*, eta haren hedatzearen lekuko gisa katalanezko *banasta* eratorria bera dakar Wartburgek. Gaztelaniaz ere jatorri galorromantze hori onartzen dute Corominasek eta Pascualek (DCECH 1, 484b), Frantzia hegoaldeetik sartuko zela aipatuz. Hitzak euskal eremuan izan duen sarbidea testuinguru orokor horretan kokatu behar da.

6. GURE PROPOSAMENA: MAHATS-EN ETIMOLOGIA

Gure etimologiarako oinarri diren hiru gako ezarri ditugu aurreko ataletan: batetik, Mitxelenaren **bana(t)s* ‘mahats’ berreraiketa klasikoa gogorarazi dugu (§ 4); bestetik, Erdi Aroan euskal hitzaren adibiderik ez dagoela nabarmendu dugu (§ 5.1); eta azkenik, hizkuntza erromantzeetan *banasta* ‘mahatsetarako saski’ hitza Erdi Aroan oso zabaldua egongo zela zedarritu (§ 5.2). Euskarazko **banas* formaren eta erromantzezko *banasta*-ren arteko harreman formal eta esanahizkoa ezartzea falta zaigu orain.

Gure ustez, berranalisiz ulertu behar da *banasta* erromantzearen eta euskarazko **banas*-en arteko lotura. Azalpenarekin abiatzeko, lehenik eta behin gogora ekarri behar da ekialdeko euskaretan badela *-ta* atzizki bat, ‘-kada’ esanahiarekin; Azkuek (1923-1925,

6 *Canastron* (gr. *κάναστρον*), berez, latinezko *canistrum*-en grezierazko etimoa da (Ernout & Meillet s. v. *canistrum*).

7 Ebaluatzaile anonimo bati eskertzen diogu ohar hau.

§ 102) esanahi hau ematen die *-kada*, *-t(a)ra* eta *-ta* atzizkiei: «medidas que contienen conjunto de cosas». Adibide hauek aurkitzen ditugu Azkuerengan (1923-1925, § 105):

Ta. Variante y sinónimo de los anteriores [*-kada* eta *-t(a)ra*] se oye entre vascos orientales en vocablos como *ahota* (BN, L, S) bocanada, *mandereta bat agotz* una sabanada (sábana llena) de paja (BN-s) y *bi astota egur* dos burros cargados de leña, liter. dos burradas de leña (R).

Hori kontuan hartuta, gure ustez euskal hiztunek errom. *banasta* ‘mahats-saski’ bera **banas* ‘mahats-saski’ + *-ta* ‘-kada’ berranalizatu zuten, zeina ez baita harritzekoa, neurria adierazten baitu saskiak; gero, ‘mahats’ esanahia hartu zuen **banas* horrek, edukiontzia- eta edukiaren arteko metonimia arruntez. Pentsa liteke bateratsu gertatu zirela berranalisi morfologikoa eta esanahi aldaketa.

Ondoren, **banas* honek hiru fenomeno ezagunak jasan zituen: 1) asimilazioz **manas-* (FHV, 268. or.; edo, bestela, cf. *makila*, asimilazio prozesurik gabe)⁸; 2) bokalarteko VnV > VhV bilakaeraz, *mahas* (FHV, 300. or.); eta 3) bukaerako igurzkarien neutralizazioz, *mahats* (FHV, 288.-289. or.)⁹.

Pouvrearen (eta besteren) *-tz* aldaerak errealitate linguistiko fidagarri bati baldin balegozkio, esan beharra dago *-tz* duten adibideak errazago azaltzen direla gure hipotesian: maileguetako txistukari apikarien egokitze arauaren aztarna lirateke, ondare zaharreko hitzetan aurkituko ez genukeen. Bestalde, bukaerako igurzkaria duten adibideak seguruak izan balira, analizatuko genituzkeen esanez neutralizaziorik gertatu gabeko adibideak direla.

Ez da berebiziko eragozpena maileguei dagokien lat.-errom. *s* → eusk. *z* egokitzapena (Mitxelena, 1968) gertatu ez izana, batez ere kontuan hartuta horrek mailegaketaren kronologiaz esan liezagukeena: badira mailegu itxuraz zaharrak –erlatiboki, behintzat– ez dutenak egokitzapen hori erakusten, hala nola *giristino* (ez **giriztino*) eta *busti* orokorra (Larregik bakarrik dakar *buzti*).

Esanahiari dagokionez, gainera, gauza ezaguna da edukiontzia- eta edukiaren arteko identifikazioa gerta daitekeela, bigarrenak lehenaren izena hartzeraino: adibide klasikoa da frantseseko *fromage*, italierazko *formaggio* eta katalanezko *formatge* hitzena, ez baitira latinezko *caseus* ‘gazta’-ren ondorengo, baizik *caseus* **formaticus* ‘moldeko, ontziko gazta’ izen + izenondo sintagmarena (FEW 3, 719a, FORMATICUM). EHHEk (s. v. *gazta/gasna*) dakarren etimologia onartuz gero, antzeko gertaera baten adibide genuke euskarazko *gazta* (< **gastane*) ere.

8 Bilakaera hau berranalisisa baino lehenagokoa ere izan daiteke: *banasta* > *manasta* → **manas-ta*. Ez genuke arrazoirik *manasta* > **mahasta* → **mahas* gertatu zela baztertzeko ere. Bestalde, alderantzizko *m-* > *b-* bilakaerarekin, ik. *busti* behean (§ 9.2).

9 Bestela, ebaluatzaile anonimo batek iradokitzen digun bezala, berranalisi morfologikoak berak eragin zezakeen afrikatzea, atzeranzko arau gisa (cf. *bats* ~ *baste*, *hotz* ~ *hoztu* moduko bikoteak).

Honenbestez, honela laburbil dezakegu hitzaren bilakaera: errom. *banasta* ‘mahatsetarako saski’ → eusk. **banas* ‘mahats’ > eusk. *mahats*. Abiaturua mailegu bat izan bazen ere, euskararen barrenean sorturiko hitza da, erromantze jatorriko Erdi Aroko beste hitz batzuekin gertatu bezala: gisa bereko berranalisien bidez sortuak dira *uzta*, *eztei* eta *dei* izenak ere (EHHE s. v.), besteak beste, eta horien artean kokatu behar da *mahats*.

7. MAILEGUAREN ETA HARI DAGOZKION GERTAKARIEN KRONOLOGIA

Mailegua noizkoa den erabakitzeke lanean, zenbait mugarri kronologiko hartu behar ditugu kontuan. Hauek zerrendatu daitezke, eztabaidan abiatzeko:

- a) Agerikoa denez, galo-erromantzez sortu ondotikoa behar du hitzak.
- b) Euskaraz VnV > VñV iraungi baino lehenagokoa behar du.
- c) Protoerromantze garaitiko s → eusk. z egokitzapenak indarra galtzen hasia zuen garai batekoa behar du. Edo, bestela, hitz hori sartu zen erromantze batetik zeinetan fonema horren nolakotasun fonetikoa aldatua zen.
- d) Euskal eremu osora zabaltzeko denbora izateko bezainbesteko antzinatasuna behar du izan.

Lehen puntuaz denaz bezainbatean (a), Wartburgek esana digu (§ 5.3) VIII. mendeko gertatua dela *benna*-ren jatorrizko esanahiaren ñabartzea eta bereiztea (‘ibilgailu mota’ → ‘zumitzezko edo adaskazko bagoi-saski, koltza’); horrenbestez, kontuan hartuta haren gainean sortuko zela gero *banasta* eratorria, egiantzekoa da mende hori *post quem* data gisa jartzea euskal mailegurako. Ondoko azpiataletan xeheago aztertuko ditugu beste puntuak.

7.1. Bokalarreko sudurkaria

Bokalarreko sudurkariari dagokionez, gogoan hartu behar dugu kontsonante bortitz eta ahulen hipotesiaren aldeko datu gisa erabili zituela Mitxelenak (1957, 145. or.) Erdi Aroko leku-izen zenbait: soinu bortitza irudikatuko lukeen <nn> grafia geminatua-rekin ditugu Bizkaiko *Egganno* (SMillán 1082) eta Gipuzkoako *Helcanno* (GuipAlb 1025), besteren artean; haien aldean, beti <n>-rekin agertzen dira idatzita Bizkaiko *Galdacano* eta Gipuzkoako *Lazcano* (gaur euskaraz *Galdakao* eta *Lazkao*). Jakina, *Galdacano* eta halakoetan beti izan dezakegu zalantza grafia «kontserbatzailea» ote zegoen, izenaren erromantzezko tradizioarena; baina besteetako <nn> horiek ezin dira hola azaldu.

Auzi honi loturiko galdera da ea noiz artekoa izan den bortitz/ahul oposizioa euskal sistema fonologikoan. Sudurkarietaz denaz bezainbatean, Mitxelenak esan bezala, bortitz jatorriko VnV (< VNV) zerekin oposatu ez zuela geratu zenean amaituko zen oposizioa, VnV > VñV (> VøV) gertatu ondotik, alegia. Zaila da zehaztea azken bilakaera

horrek noiz arte iraun zuen: Bizkaiko *Donestefabe* (*ColCenar* 1353) izeneko <h> grafemak /h/ islatuko balu, XIII.-XIV. mendeetara arte iraun zuelako zantzua genuke; baina kontuz hartzeko datua da, hiatoa apurtzeko funtzio grafiko soila izan bailezake hatxeak¹⁰. Bestela ere, balizko hasperena azken silaban egoteak galderak sortzen ditu: bilakaera XIV. mendean gertatu zenik ezin esan, baina askoz lehenagokoa ere ezin izan zitekeen, hasperenak ez baitzuen luzaro iraungo posizio horretan. Bada, bestalde, *Llascabona* (*SMillán* 1087) bat, editoreek *Lazkao* lemapean sailkatu dutena, baina bukaerako *-na* arazotsua da, eta baliteke ez izatea *Lazkao*-ren adibidea¹¹. Hala balitz, tarteko **Lazkaho*-ren adibidea genuke hor.

Mitxelenak esplizitatzen ez badu ere, badirudi, beraz, mende zenbaitetako iraupe-na izan zuela bilakaera honek. Noiztikakoa izan zitekeen zedarritzeko akitanierazko datuen lekukotasuna ekar dezakegu eztabaidara: aski ziurra dirudi akit. *seni*-ren eta euskara modernoko *sehilsein*-en arteko identifikazioa, eta hitz horretan ez dago VnV > VhV bilakaeraren aztarnarik. Horrek laguntzen digu K. o. I.-III. mendeetako *post quem* data ezartzen.

Lakarrak (2013, 285. or., 18. oh.)¹², ordea, jadanik Mitxelenak onarturiko *lohi-doi* bikotearen identifikazioaren bidetik, proposatua du **don-i* berreraiki behar dela *lohi*, eta ziurtzat du hitz hau akitanierazko *lohi*-rekin lotu beharra (cf. LOHISI, LOHIXSI, LOHITTON, Gorrotxategi, 1984, 234.-235. or.). Hala balitz, akitanieraren garairako behar luke indarrean egon VnV > VhV bilakaerak; ikusi, dena den, Ariztimuño (2018, 21.-22. or.) azalpen horrek azalgai dituzkeen ertzen gaineko eztabaida neurritsurako¹³.

Bestalde, ohar esanguratsua egiten du Hualdek (2015, 136., 145. or.): *zendea* bezalakoak aintzat harturik, argi dago VnV > VhV (> VøV) oraindik indarrean zegokeela erromantzez /ke/ > /tse/ gertatu ondotik ere (lat. /kentena/ > errom. **tsentena/* → eusk. /sendea/); Hualdek VII. mende inguruko kronologiarekin ematen du erromantzezko herskari belarraren bilakaera hori¹⁴, eta, beraz, badakigu euskarazko sudurkariaren bilakaera VII.-VIII. mendeetan ere bazela gutxienez.

10 Agiri horretan ez dago euskal izen askorik, baina hirutan dugu *Hondarroa*, beti <H->-rekin; *Oçæta* ere badugu, <æ>-rekin. Bestalde, bilduma berean, <ahe> hiatoa *Jaén* izenaren adibideetan aurkitzen dugu (1386ko agirietatik aurrera), eta bi <caher> ditugu (1514ko eta 1556ko agiri banatan). Nabarmen ugariagoak dira <æ> adibideak, dozenaka baititugu <raer>, <maestre>, <traer>, <raedura> modukoak.

11 Beste aukera bat litzateke *hon* ‘on’ + *-a* egotea, baina *Llasca* bera ez zaigu ezaguna; <sc> digrafo moduan har ote liteke, txistukaria adieraziko lukeena? *Latsabona* edo? David Petersonek dioskunez, lematizatze hau zalantzazkotzat joko dute hemendik aurrera.

12 Euskarazko bilakaera datatzeko, gaskoiaren VnV > VøV ere aipatzen du Lakarra (2013, 286. or.), zeina VI. edo VII. mendeetarako burutua zegokeen. Lakarrak berak dioenez, dataziorako argudio ahulagoa da, «beste hizkuntza baten fonologiatik egindako jauzia baita». Ondoko azpiataletan erakutsi dugunez, kronologia hori ez da egokia eztabaidagai dugun *mahats*-erako.

13 Lan horretan berean, *behe* ere VnV > VhV bilakaeren adibideen artean kokatzen du Ariztimuño (2018, 26.-28. or.). Hitz horretan bada, ordea, beste aukerarik: Erdi Aroko *goiben* eta *behen* modukoak kontuan harturik, *-ben* superlatibo dagoela proposatua dago (Manterola, 2015, 220.-223. or.).

14 Berez herskariaren sabaikaritzearekin hasi zen, jadanik II.-III. mendeetan (La Chaussée, 1989, 180. or.); hortik sorturiko afrikatu sabaikarien despalataltzea VII. mendean kokatzen du La Chaussée ere (1989, 194. or.).

Erabili ditugun datuekin, oso tarte zabala geratzen zaigu VnV > VñV aldaketaren kronologiarako: batetik, Lakarraren *lohi*-ren interpretazioa alde batera uzten badugu, K. o. I.-III. mendeen ondotik hasitakoa behar du; bestetik, Hualderen oharra eta Mitxelena-ren argudiobidea oinarri *-Llascabona* eta *Donestefabe* modukoek ez digute zehaztaperen gehiagorako ziurtasun erabatekorik eskaintzen-, Erdi Arora arte iraun zuen.

7.2. Txistukaria

Bukaerako txistukaria *-tz* lepokaria ez denez (ikusi § 3 Pouvreau eta besteren adibide bakanak), gaude mailegu erlatiboki berantiarra dela. *Uzta* moduko maileguak ere ez dira zahar-zaharrak, ez dira protoerromantzekoak (*castellu* > *gatzelu* izan zitekeen bezala), forma idio-erromantze batetikoak baizik: EHHeren arabera (s. v.), gaskoizko *aoustà* forma batetik mailegatu zen *uztatu* aditza, eta hortik dukegu *uzta* izena. Eta, halere, *s* → *z* egokitzapena gertatua da. *Uzta* ere, ekialdetik sartutako beste mailegu batzuekin batera, VII. mende ondotiko garaian kokatu izan da (Manterola, 2020, 627. or.), lan horretan hitz horri buruzko berariazko azterketarik egiten ez bada ere. Bada, hala ere, *uzta*-ren itxurazko zahartasun erlatibo horri kontrajartzen zaion datu bat: *uzta* ez da orokorra, ez baita dokumentatuta mendebaldeko hizkeretan.

Horrenbestez, kronologia erlatiboak ezartzeko egiten ari garen lan honetan, printzipioz ongi ezkontzen ez diren bi datu-mota ditugu hemen, gertakari fonetikoarena, batetik, eta hitzen hedadura dialektologikoarena, bestetik. Honela formulatu genezake dilema hau:

- a) *uzta* «zaharra» da, *s* → *z* egokitzapena izan duelako, baina «berria» da aldi berean, ez delako orokorra.
- b) *mahats* «berria» da, ez duelako *s* → *z* egokitzapena izan, baina «zaharra» da, orokorra delako.

Bistan denez, aintzat hartu ez ditugun datu eta faktoreak daude, ikuspegi zurrin hau modulatzera eraman beharko gaituztenak. Esaterako, *uzta* mendebaldeko hizkeretara zabaldu ez izanak ez du ezinbestean esan nahi ez «zuela denborarik izan haraino zabaltzeko»; besterik gabe, esanahi bereko beste hitz bat egon zitekeen hizkera horietan, hedatzea eragotzi zuena. Kasu honetan, *abustu* dugu jadanik Landucciogan (zeinak, bide batez, *uzta*-rekin partekatzen duen azken buruko etimo latindarra, *augustus*), eta baita *batze* aditz-izena ere mendebaldeko beste hizkera batzuetan (*baketea* dakar Landucciok «recogimiento» itzulita).

Badira, gorago esan bezala, *s* → *z* egokitzapenik gabeko mailegu batzuk, itxuraz zaharrak diren beste bilakaera batzuk badituztenak: horren adibide garbia da *girstino*, *cristianu*-tik anaptixiz *giris*-duena, jatorri bereko *kristau*-k ez bezala; alabaina, aldi berean *-o* du, berritasun zantzu gisa har daitekeena (Mitxelena, 1974, 191. or.; *-u* du *kristau*-k). 1366koa bide da *girstino*-ren lekukotasunik zaharrena (*Miguel Periz Guiristiona*, *PobNav*) eta, beraz, pentsa genezake XIV. menderako ez zela beti *s* → *z* gertatzen. *Muztio* eta *busti*-ri buruz, ikusi § 9.2.

Azken ohar bat egin behar da auzi honetan: agian ez da baztertzekoa jatorrizko hizkuntzako *banasta*-ko /s/ jadanik euskal apikaritik hurbil hauteman izana eta horren arabera egokitu izana euskaldunek; hots, jatorri-hizkuntza erromantzean aldaketa bat gertatua zela txistukarion tasunetan, fonetikoki lehen zena baino apikariago eginez –agian herskari aurreko kokapenak erraztuta–, edo hala hautematea bederen euskal hitzunek, eta hori gailendu izana aurreko egoera fonetikoaren arabera fonologizatua zegoen protoerrom. $s \rightarrow$ eusk. z egokitzapen arauari. Holako zehaztapenak ere maileguaren izaera erlatiboki berantiarraren aldekoak dira.

7.3. Maileguaren sartzeko gunea

Goian esan dugu antzinasun nahikoa behar duela izan *mahats*-ek, euskal eremu osora zabaltzeko denbora izan baitu. Ohar hau lotua dago maileguaren sartzeko-eremuaz eta hedatzeko-gune edo fokuez pentsa dezakegunarekin: sarbide bakarra izan ote zuen euskaraz, ala gune bat baino gehiagotatikoa dugun (gogoan harturik euskal eremua inguratzen duten erromantze guztietan badagoela *banasta*). Gure ustez, sinpleagoa da pentsatzea gune bakarretik sartu zela, euskal eremuko ekialdetik, hain zuzen, eta horren alde argudio zenbait ekar daitezke hizpidera:

- a) Gune batetik baino gehiagotatik sartu zela proposatu nahiko bagenu, pentsatu beharko genuke *-ta* atzizkiaren berranalisia (hitzaren etimologiarako proposatu duguna) modu berean gertatu dela sarrera-puntu guztietan, eta hori ez zaigu egiantzekoa iruditzen. Eragozpen gutxiago du pentsatzeak berranalisia behin gertatu, eta hortik zabaldu zela hitza euskal eremu osora.
- b) Ohartarazi behar da *-ta* atzizkia ekialdekoa dela, garai historikoan behintzat, eta datu hau ere, atzizki honen historiaz gehiago ez dakigun bitartean, ekialdeko sargunearen aldeko argudio moduan erabil dezakegu.
- c) Hitzaren itxura fonetiko oso da uniforme euskal hizkera guztietan, bokalarteko hasperenaren galera eta bokalen euren bakuntzea gorabehera: hastapeneko ezpainkariaren asimilazioa orokorra da, eta bokalarteko sudurkaria dugu; gune batetik baino gehiagotatik sartu izan balitz, agian aldeak espero zitezkeen.
- d) Gorago esan bezala (§ 5.3), Corominasek eta Pascualek dioskute Frantzia hegoaldeetik sartuko zela hitza gaztelaniara; ezinbestean, penintsula erdi-mendebaldeko gaztelaniara sartzeko –katalana dugu ekialdean–, euskal eremua zeharkatuta sartu beharko zuen, euskal eremuaren ekialdeko hitzunek, hain zuzen, izango zuten hitzarekin kontaktua lehendabizikorik.

Gune horrek, agerikoa denez, Nafarroako lurraldeekin egiten du bat, eta horixe dukegu hitzak hizkera guztietara hedatzeko beharrezkoa zuen foku hedatzailea, Euskara Batu Zaharrak behar zuen batasun politikoari dagokion gune bera, Mitxelena (1981) azaldu zigun bezala, Nafarroako Erresumarena. Horrela, *mahats* hitzak ere bat egingo luke ekialdeko idioerromantzeetatik sarturiko beste mailegu

batzuekin, protoerromantzearen garaikoak izan gabe aski zaharrak behar dutenak euskal eremu osora zabaltzeko. Horien artean bide ditugu *deitu*, *eme*, *eztei*, *negu*, *putzu* eta *uzta*.

7.4. Kronologia proposamena

Lehen hurbilketa gordin modura, abia gaitezen esanez VIII.-XIII. mendeen artean gertatu zela hitzaren mailegketa.

Aurreko ataletako eztabaidatik, ondorio nagusia da ezin dela oso mailegu zaharra izan (ez dago Erdi Aroko toponimian hitzaren arrastorik, hizkuntza emailean ere ondorioztatu dugu VIII. mende inguruan sortua izan daitekeela, ez du *uzta*-k duen /s/, etab.), baina, era berean, foku hedatzaile aski indartsu bat harrapatzeko bezain goiztiarra izan behar izan zuen, euskal eremu osora hedatzeko. Gure ustez, Goi Erdi Aro bukaerakoa da mailegua, XI. edo XII. mendekoa; mende horietan ez zen hasia ondoko mendeetan zetorkeen Nafarroako Erresumaren gainbehera, eta horren isla da hitzaren hedadura. Txistukariaren gorabehera dago, batez ere, lehenagokoa, VIII.-IX. mendeetakoa, ez dela pentsatzeko arrazoi nagusia.

7.5. *Banasta* eta *basta* euskaraz

OEhk dakarrenaren arabera –FEW (1, 329a) hiztegian ere jasoa zuten–, euskaraz badugu *banasta*, *manasta* ere, bizkaieraz, batik bat, ‘saski, otzara’ esanahiarekin.

Gure hipotesiaren barnean, bistan denez, birmailegaturikoa behar du izan. Nolanahi ere, gaur egun ezagunak zaizkigun erromantzeetan hitz hau ohikoa egiten ez bazaigu ere, birmailegatze honek hitz erromantzearen inoizko bizitasunaren berri ematen digu.

Pentsa lezake inork euskarazko *basta*, *basto* ‘zamarientzako zela’ ere *banasta/banasto*-ren ondorengoa dela, *banasta* > **bahasta* > **baasta* > *basta* moduko bilakaeraren batekin. Baditugu, alabaina, honen kontrako zantzuak: a) hitzak aski hedadura zabala du euskaraz, eta ez da egiantzekoa pentsatzea ez duela inon gorde ez hasperenik ez bi bokalen aztarnarik; b) nahiz eta hizkuntza erromantzeetan ‘saski’ esanahiarekin aurki daitekeen hitz hau, *basta* hau eta gure *banasta* garbiki etimo ezberdinen pean sailkatzen dituzte erromanistek, ikusi DCECH (1, 539b, BASTO₂) eta FEW (1, 279b, *BASTUM).

Honenbestez, hiru mailegatze prozesu genituzke: *banasta* ‘saski’ erromantzea bi aldiz mailegatu da, bi garai ezberdinetan, batean *mahats* [fruitua] sortuz, bestean *banasta* ‘saski’ sortuz, eta, bestalde, etimo ezberdineko *basta* ‘zela’ ere mailegatu du euskaraz hizkuntza erromantzeetatik.

8. BLEVINSEN PROPOSAMEN ETIMOLOGIKOA GUREAREN ARGITAN

Mitxelena, **bana(t)s* berreraiki zuenean, zuzenean kritikatu zuen, azalkizun ziren datuak oinarri hartuta, Bouda, Schuchardt eta besteren bokal bikoiztearen ideia.

Antzeko eginkizun bat egokitzen zaio gure proposamenari ere, garaikide duen Blevinsenari buruz; gogora dezagun *ma* ‘fruta’ + *ats* ‘ilun’ proposatzen duela (§ 2).

Gurearen argitan, honela zerrendatu daitezke proposamen horren makurrak:

- a) Oinarrizko eragozpen formaletatik hasteko, **ma* errorik ez dago historikoki dokumentatuta ‘fruta’ esanahiarekin. Bestalde, erro horretako /m/ susmagarria da ondare zaharreko hitz batentzat: hau Blevinsen berreraiketan bakarrik izan daiteke egokia, bere aitzineuskararen sistema fonologikorako proposatzen duelako /m/.
- b) Bigarren zatiari dagokionez, *ats* ere ez da inon ‘ilun’, eta formaren aldetik ere sekundarioa eta dialektala da, *arrats*-etik eratorri nahi badu, behintzat.
- c) Ez du xeheki azaltzen nola sortu den /-h-/ hitz honetan.
- d) Maila metodologikoan, haren proposamena ez da errotzen aurrez eginiko proposamenen kritika baten gainean, eta erdietsitako adostasunak ere ez ditu aintzat hartzen; hau da, Mitxelenaren berreraiketa klasikoa ez du kontuan hartzen.
- e) Blevinsen proposamena ez da arduratzen hitzaren lekukotasunen filologiaz: jokatzen du Erdi Aroko datuak eta bokal sudurkariak dituzten aldaerak existituko ez balira bezala.
- f) Horren guztiaren ondorioz, ez da arduratzen halako hitzen azterketa xeheak euskarazko bilakaera fonetikoez dakartzan aurrerapenak aletzeaz, haien kronologiari gagozkiolarik.
- g) Ez da, oro har, arduratzen hitzaren beraren arazoak konpontzeaz, balizko teoria orokor baten aitzakian. Teoria batek arazo anekdotikoak gainditu behar ditu, jakina, ez da horretan dudarik, baina ezagunak diren datu, fenomeno eta arazo konkretuak ere azaldu behar ditu.

Esan daiteke, bestalde, Bakkerren (2020) ustea gorabehera, arazo hauek Blevinsen liburu osoa zeharkatzen dutela, eta *mahats* hitzaren gorabeheretatik harago doazela.

9. MAHASTIZAINZA ETA ARDOGINTZA EUSKAL EREMUAN: OHAR HISTORIKO-ETIMOLOGIKO BAT

Mahastizaintzak euskal lurraldeetan izan duen historia argitzeko, bilatu nahi izan da loturarik ardogintzari dagozkion euskal hitzen (*mahats*, *ardo*...) etimologiaren eta ardogintzak berak euskal lurraldeetan izan duen historiaren artean. Agudek (1983, 27.-28. or.), esaterako, *ardo*-ren jatorrizko esanahia ‘edari’ izan zitekeela aintzat hartuta, honela galdetzen du mahastizaintzaz: «¿No sería cultivada la vid hasta época más tardía? Una objeción válida fuera que en vascuence el nombre del ‘racimo’ (*mahats*) no

es de tipo latino ni románico». Eta urrunago jotzen dute Sagastizabalek eta Gonzálezek (1996, 235. or.), *mahats*, *ardolarno* eta *ardantze* ondare zaharreko hitzak direla argudiatuta euskal lurraldeetako «lehendabiziko» biztanleek «una realidad vitivinícola incipiente» ezagut zezaketela ondorioztatzen dutenean.

Gure ustez, bestelakoa da euskal hitzen etimologiak oinarri hartuta egin beharreko irakurketa. Ondoko azpiataletan, *ardo* eta *muztio* hitzen etimologiaz aritu ondoren, mahatsak eta ardogintzak euskal lurraldeetan izan duen historiaren berri emango dugu.

9.1. *Ardo* hitzaren etimologiaz

Euskal hitzaz arduratu aurretik, ardoaren testuinguru linguistiko-kultural zabala ezagutzea garrantzitsua delakoan, egoki da hizkuntza indoeuroparretako ‘ardo’ hitzari buruzko ohar bat egitea.

Indoeuropar ikasketetan, ardoa izendatzen duten hitzen etimologia aztergai izan dutenean, erro indoeuroparraren mailegu izaera aipatu izan dute hainbat lan klasikok, eta eztabaida berean kokatu ohi dira hizkuntza semitikoetako hitzak, kartvelikoe-takoak, etab. Honela diosku Buckek (1949, § 5.92, s. v. *wine*), greziera zaharreko *οἶνος*, latinezko *vīnum*, albanierazko *venë*, armenierazko *gini*, hebraierazko *yayin* eta arabierazko *wain* aipatu ondoren: «all prob. loanwords from some prehistoric Mediterranean source»¹⁵. Era berean, betiere Bucken arabera, europar hizkuntzetako ‘ardo’ hitzek latinezko *vīnum* dute jatorri, greziera modernoan (*οἶνος* zaharra ordezkaturik *κρασί* baitu egun) eta albanieran izan ezik: mahastizaintza intentsiboa Mediterraneo ekialdeko lurralderen batean hasiko zen, eta hortik zabalduko zen Europara, erromatarren bidez, batik bat.

Euskarak, ordea, eremu eta, funtsean, kultura zabal horren barnekoa izanagatik, ez du mediterranean erro hori partekatzen, eta itxura guztien arabera euskal ondare zaharrekoak dira *ardo*, *ardao*, *arno*, etab., aspaldidanik **ardano* aitzin-formarekin berreraikiak (Altube, 1923, 518. or.). Jatorrizko esanahia ‘edari hartzitu’-edo zukeen **ardano* honek, jadanik Leizarragak 1571n gaztigatu bezala: «*Arnoa*, hartzen da hordi ahal deçaquen edari guciagatic» (Linschmann & Schuchardt, 1900/1990, 1202. or.). Oihenartek Pouvreauri bidalitako oharrean ere sagar zukuari egiten dio erreferentzia *arno*-k: «*Arno bustiñoa* ne veut pas dire vin pur, mais du pomme pur, fait du suc de pomme, sans y mêler de l’eau» (OEH s. v.).

Horrenbestez, Lakarraren ideiari segituz, aski egiantzekoa da **ar-dan-o* analisisa –besterik da zehaztea noiz sorturikoa den–, zeinak **dan* ‘edan’ erro esanahiz egokia ematen digun (ik. EHHE s. v. *ardo*).

15 Mailegua gabe, ondare zaharrekoa izan daitekeela argudiatu dute indoeuropeistek azken hamarkadetan, ik. adibidez Gorton (2017); **weih₁-on-* eta **uīh₁-on-o-* (Beekes, 2010, s. v. *οἶνος*) moduko formak berreraikitzen dituzte.

Agudek (1983, 35.-36. or.) emana digu hitzaren esanahiaren gorabehera historikoen berri: jatorrizko ‘edari hartzitu’ esanahi orokorretik, edari hartzituen artean une jakin batean arrakastatsuen a–ekonomikoki garrantzitsuen a– izatera iritsitako hura izendatzera iragango zen *ardo*, *arto* ere Amerikatik sarturiko zereal berria (*Zea mays*) izendatzera iragan zen bezalatsu, jatorrizko ‘artatxiki’ esanahia utzirik.

Honek guztiak galdearazten digu ardoak, mahastizaintzak eta ardogintzak nolako tokia izan duten euskal lurraldeetan historian zehar.

9.2. *Muztio*-ren mailegaketaren garaiaz ohar bat

Gorago aipatua dugu mailegua dela *muztio* ere. Hitz honen gaineko lanketa historiko-etimologikoa hemen agortuko ez badugu ere, haren mailegaketa garaiaz ohar bat dakargu atal honetan.

Pater Noster txikiko *ardan busti*-ri, TAVeko bere iruzkina osatzeko, ‘ardo berri’ esanahia ematen dio Mitxelenak (1971, 208. or., 21. oh., FHV, 499.-500. or.); Schuchardt-en proposamena du hizpide (1899, 181. or.), zeinak okzitanierazko *mousti*-rekin lotzen duen *busti* aditza. Haren aurka, ordea, nahiago du Mitxelenak zuzenean latinezko *musteus*-etik eratorri, **mustius* > *musti* moduko bilakaeraren bat gogoan duela, cf. *martius* > *marti* ‘martxo’ (FHV, 135).

Alabaina, *busti* horrekin batera *muztio* eta haren aldaerak harturik (*bustino*, *buztino*, *mustio*, *buztio*, *bustio*...), azalpen xeheagoak eman behar dira, eta Mitxelenaren ustea baztertu: lehenik eta behin, *busti*-ren eta *muztio*-ren kidetasunaren adierazgarri, jar bedi *ardanbusti*-ren ondoan Oihenarten *arno bustiño* ‘sagar zuku’. Esanahiaren aldetik ere, Mitxelenaren oharrak osatzeko, badugu Erdi Aroko okzitanierazko *vin most* «vin non fermenté» (FEW 6/3, 271a, MUSTUM), zeina ongi lotzen den ‘ardo berri’-rekin; horren kalko hutsa dirudi *ardan busti*-k.

Horretaz gain, kontuan hartu behar da sudurkaridun aldaerak dituela *muztio*-k, *bustino* eta *buztino*, eta horiek ere azaldu behar direla: horretarako, abiapuntu egokia izan daiteke gaskoiz dokumentatua den *moustinous* «plein de moût, sale» adjektiboa (FEW 6/3, 272a, MUSTUM), *musteus* latindarra bezala *mustum*-en eratorria. Uste dugu *busti*-ren esanahiaren gorabeherak ere erromantzearen barrenean esplikatu daitezkeela, cf. Erdi Aroko okzitanierazko *moste* «mouillé» (FEW 6/3, 270b-271a, *MÜSTĪDUS); **müstīdus* adjektibo hau, zeina *mustum*-en eratorria baita, okzitanierazkoa baizik ez da.

Gure ustez, datu hauek guztiak hobeki ulertzen dira maileguak Erdi Arokoak, erromantzetikoak baldin badira. Are gehiago, badirudi *buztin/bustin* ere familia erromantze bereko hitza dela, eta *buztina* edo *buztiño* (Urte) moduko aldaerak ondo azaldu daitezkeela **mustinus* edo **mustina* adjektibo batetik; esanahirako, aurki daiteke ‘lur heze, buztin’ erabilerarik familia zabal bereko beste hitz batean, cf. fr. zaharreko *moysse* «terre humide près d’un cours d’eau» (FEW 6/3, 270a, MÜSTEUS).

9.3. Antzinatea

Ekialde hurbilean ditugu mahastiaren etxekotzearen lehen aztarnak, eta jadanik mesopotamiar kuneiformeetan badugu ardoaren berri, duela 4.100 urte (Zohary, Hopf & Weiss, 2012, 124.-126. or.). Ik. halaber Böhm (2011, 16.-30. or.).

Gure esparru geografiko-kronologikoari heltzeko, Diodoro Siziliakoaren deskripzioak har ditzakegu abiaburu moduan: K. a. I. mendean, Galian garagardo moduko bat edaten zuten, eta Iberiar penintsulako zeltiberiarrek, berriz, ezti-ura; ardoa inportaziozkoa baizik ez zen haien artean (Diodoro, V, 26, 34).

Ardorik gabeko antzeko egoera bat irudika genezake euskal lurraldeetan ere. Ondoko hiru azpiataletan, gainbegirada bat eman diogu Antzinatean lurralde horien inguruan mahastizaintzak izan zuen bilakaerari.

9.3.1. Euskal lurraldeen ipar aldeko mahastizaintza: *Galia atlantiarra*

Euskal lurraldeen iparrean, antzinako gure akitaniarren muga-lurraldeetan, ezagunak dira gaur Bordele aldeko ardoak. K. a. 56. urtean konkistatu zuten erromatarrek Akitania, eta Roger Dionen lanaren arabera (1959, 121.-126. or.), zeina iturri idatzi zaharretan oinarritzen baita, K. o. I. mendearen erdialdean garatu zen mahastizaintza Bordele inguruan. Erromatar bakearen eskutik, betiere¹⁶.

Bertako ekoizpena hasi baino lehen, inportaziozko ardoa edaten zuten Bordelen: jadanik K. a. II. mendearen bukaeran Italiatik iristen zitzairen, gero, K. o. I. mendearen erdialdera arte, Katalunia aldetik; indusketetan azaleratutako anfora moten bidez ondoriozta daitezke gorabehera horiek (Berthault, 2000, 31., 43.-50., 55.-69., 112. or.).

Zaila izan zaigu euskal lurraldeetara askoz gehiago hurbiltzea. Hondar arkeologikoen bidetik (dolareak, *cella vinaria*-k, igitaiak...), badugu Pauetik 100-150 kilometro ekialderagoko aztarnarik (Balmelle et al., 2001, 144.-146., 152. or., 77. irudia, 157.-158. or.). Ezin jakin, dena den, zenbateraino egon zitekeen bizirik akitaniera inguru haietan, jarduera ekonomiko erromatar hau martxa betean zegoen garaietan.

Barbazan-ek (1990, 39., 169. or.) ziurtzat ematen du Nafarroa Beherean eta Biarnon jadanik erromatarren garaian praktikatzen zela mahastizaintza, baina ez dugu aurkitu zein iturriren gainean oinarritzen den baieztapen hori.

16 Lehenago, Zesarrek ez du behin ere Galiako mahastirik aipatzen, eta Estrabonek dio atlantiar isurialdeko Galian ez dela hazten (Dion, 1959, 101.-102. or.). Aztarna arkeologikoez errealitate nabarragoa marrazten dute, ik. Brun (2011).

9.3.2. *Mahatsa isurialde atlantiarrean: Oiasso*

Isurialde atlantiarrean, Oiasso inguruan uste dute Sagastizabalek eta Gonzálezek (1996, 237. or.) izango zuela mahastizaintzak ezarpenik behinena. Horren aldeko argudio arkeologikoak, ordea, ez dira erabatekoak.

K. o. I.-III. mendeen arteko kronologia dute Irungo indusketetan jasotako aztarnek, tartean daudela mahats-haziak. Oiassoko hauek basamahatsen aztarnak izan daitezkeela aipatzen du Zapatak (2002, 133.-134. or.), edo inportazioaren ondorio, nahiz azkenerako ez duen erabat baztertzen mahastizaintzari dagokion jardunaren lekuko izatea: «El hecho de que en la vertiente atlántica no se hayan documentado semillas de vid hasta el s. I d.C., además en relación con actividades comerciales, podría indicar una explotación tardía de la especie en esta zona» (Zapata, 2002, 175.-176. or.; ik. halaber 179., 192. or.).

Zarauzko Andra Maria Erregina elizan eginiko indusketetan, aldiz, ez bide dago *vitis vinifera*-ren aztarnarik, ez garai erromatarrean ez Erdi Aroan ere (Ruiz & Zapata, 2009, 138., 148. or.). Horrek ere eman lezake Irungo datuen neurria.

9.3.3. *Euskal lurraldeen hego aldeko mahastizaintza: Iberiar penintsula*

Iberiar penintsulan, K. a. VIII. mendean ditugu lehenengoz ardogintzaren zantzu ziurrrak, feniziar kolonoen eskutik lehenik, greziarrenetik ondoren (Celestino & Blánquez, 2007).

Galia atlantiarraren aldean, lehenagoko kronologiak ditugu erromatarren Iberiar penintsulan. K. a. II. mendearen hasieran kokatu behar dugu Iberiar penintsulara italiarretik egiten ziren ardo inportazioak, eta garai horretakoa omen dugu Ebro haran erdialdeko lehen lekukotasun arkeologikoa ere, ontzi bat, inportazio horren berri ematen diguna (Santos, 1996, 41. or.).

Inportazio garai horren ondotik, bertako produkzioarena iritsi zen Hispanian ere. Kolono italikoek abiarazi zuten izari handiko mahastizaintza (Santos, 1996, 43., 46. or.), gaurko Kataluniako lurraldeetan, eta K. a. I. mendearen lehen erdirako esportatzeko moduko soberakinak ere ekoizten zituzten. Ebro haranean goiti ardo horrek K. a. I. mendearen eta K. o. I. mendearen artean izan zuen zabalkundea ezagutzeko, anforek ematen digute informazioa hemen ere: «País Vasco»-rako, «[e]l río Ebro es la vía de difusión normal de la cerámica romana» esaten digu Beltrán Llorisek (2007, 304. or.). Aro aldaketako garai horretan, Guardian, Iruñean, Cascanten, Calahorran eta beste zenbait tokitan aurkitu dira kataluniar jatorriko ardo-anforak (Beltrán Lloris, 2007, 278.-294. or., 4., 9. eta 13. irudiak). Gutxi edo asko, Getarian (Lapurdi), Higer Lurmuturrean eta Irunen ere bada aztarnarik; *Burdigalan* barrena iritsitakoak ere izan daitezke Kataluniako anfora-hondar horietako batzuk (Beltrán Lloris, 2007, 306. or.).

K. o. I. mende horretatik beretik aurrera aurkitzen ditugu zantzuak, lekukotasun arkeologikoak, alegia, Nafarroan ardo ekoizten zela ziurtatzeko. Mezquírizek (1995-1996) Arellanoko, Ledeko eta Funesko aztarnategietako ardogintzari loturiko instalazioak aztertu ditu (dolare eta abarrak), eta haien ezarpen garai zaharrena K. o. I.

mendean kokatu. Bestalde, Faltzesko *villa*-n aurkitutako lurrazpiko pasabidea edo *cella vinaria* V. mendera arte erabili zela esaten digu: haren edukierari begiratuta, *villa*-ko biztanleen kontsumorako baizik ez zen izango. Ohar garrantzitsu batekin bukatzen du Mezquirizek: induskatutako ontziak ardoa biltegitartzeko ziren, ez garraiorako (hots, *dolium*-ak dira, ez *anfora*-k).

9.4. Erdi Aroa

Gure argudiobide etimologikorako, erromatar inperioaren gainbeheraren ondotiko garaia da gakoa. Ez dugu aurkitu V.-VIII. mendeen arteko euskal herrietako mahastiez ari den lanik, baina gogoraraztekoa da, adibidez, Gregorio Tourskoaren kontakizuna (IX. liburua, VII. atala), 586an euskaldunek Biarnon eginiko sarraskien berri ematen duena (etzana gurea):

Wascones vero de montibus prorumpentes, in plana descendunt, vineas agrosque depopulantes, domus tradentes incendio, nonnullus abducentes captivos cum pecoribus. Contra quos saepius Austrovaldus dux processit, sed parvum ultionem exegit ab eis.

Gregorio Tourskoaren informazio horren harira, interesgarria da, orobat, Pierre de Marca historialariak (1640, 105. or.) ondorioztatzen duena: «Le degast qu'ils [baskoiek] firent aux vignes, tesmoigne assez qu'ils s'auancerent bien auant dans la Nouempopulanie, iusques aux quartiers de la Preuosté d'Acqs, de la Chalosse, et du Bearn». Erreferentzia geografiko gisa hartzen baititu, badirudi iradokitzen duela mahastiak eurak gaurko euskal lurraldeetatik iparrera zeudela.

9.4.1. Donejakue bidearen ardatza eta ardogintza Goi Erdi Aroan

Aurreko atalean aletu dugun erromatar garaiko ardogintzazko jardun hori gorabehera, badirudi Goi Erdi Aroan indartu zirela erabat mahastizaintza eta ardogintza euskal lurralde eta auzo eskualdeetan. Mahastizaintza eta ardogintza kristau erlijioaren sorrerarekin eta haren hedatzearekin estu lotuta ikusten ditu Cierbidek (2013, 3. or.), eta ildo horretan honela esaten digu Dern-ek (1996, 329. or.): «Los monjes de las grandes familias religiosas han sido en la Edad Media los primeros roturadores viticultores y arregladores del territorio»; Bordele inguruko mahastigintzan eta ardogintzan, beneditarrek izan omen zuten berebiziko garrantzia, beste ordena batzuetako monjeekin batera, eta horren harira gogoan izan bedi VI. mendeko *Regula Benedicti* delakoa, San Benediktorena, zeinetan monjeek har zezaketen ardo kopurua arautzen baitzen. Cierbidek dioskunez (2013, 3. or.), VIII. mendean hasita, kolonoak ezartzen zituzten monjeek beren lurretan, mahatsondoak landatzearekin batera, diru-iturri garrantzitsua baitziren; erromesaldi bideek berebiziko rola izan zuten lurraldea antolatzen, izan ere Donejakuerako bideen inguruan ezarri baitziren mahasti handiak, abadía eta monasterioekin batera (Dern, 1996, 329. or.). Horri dagokion testuinguru geografikoak, bistan da, bete-betean harrapatzen ditu euskal lurralde zenbait.

9.4.2. Picauden lekukotasuna eta beste datu batzuk

Aymeric Picauden hiztegiño ezagunak (~1150) *ardo* hitza ere badakar: «Deum uocant *Urcia*, Dei genitricem *Andrea Maria*, panem *ogui*, uinum *ardum*» (Bilbao, 1994,

75. or.). Interesgarria da hona ekartzea haren beste pasarte batzuk, XII. mende inguruko euskal lurraldeetako ardogintzaren berri ematen digulako. Honela diosku iparraldeaz eta Nafarroa Garaiaz ari dela (Bilbaoren itzulpena, 1994, 70.-74. or.)¹⁷:

Gero Garaziko Mendietatik hurbil euskal lurrak datoz, itsasertzean iparralderantz Baionako hiriarekin. Mintzaira basatiko lurra da, oihantsu eta menditsua, ogi, ardo nahiz bestelako janaririk gabekoa, sagarrak, sagardoa eta esnea ez bada.

[...]

Haran honen [Orreaga inguruaz ari da] hurrengo, nafar lurraldea dator, ogi eta ardo, esne eta ganadutan aberatsa.

Baliteke toponimiak Picaudek deskribatutako alde hori islatzea, izan ere Nafarroa Garaikoak ditugu *ardantze*-ren adibide zaharrenak, eta berantiarragoak dira iparraldeko lekukotasunak: Nafarroa Garaian, cf. *uineam que apellatur Bazterreco Ardancea de Eça* (*Collrach* 1164) eta *loco qui dicitur Ardancezarra* (*DocLeire* ~1171), besteren artean, baita lehenagoko *Orti Ardande* (*DocArtaj* 1157) ere¹⁸; Nafarroa Beherean, *Ardancea* etxea (*CenBNav* ~1350), *L'ostau d'Ardance* (*CenBNav* 1412) da gure corpusean aurkitzen dugun lehendabizikoa. Ohar bedi, dena den, urriagoak eta berantiarragoak ditugula, oro har, lurralde hauei dagozkien tradizio sekundarioko iturri idatziak.

Horretaz gainera, Picauden hitzak Irulegiko mahastien hastapenaren garaikide dira, izan ere XII. mendean abiarazi baitzituzten mahastiok Orreagako monjeek, hain zuzen Donejakue bideko beilarien ardo hornidura ziurtatzeko (Barbazan, 1990, 39.-40. or.). Ez dakigu zenbaterainoko garapena izana zuten mahasti horiek beilari poitoutarrak lurralde horiek zeharkatu zituenerako, baina nolana ere den hark ez zuen, dirudienez, haien berri izan, edo ez zitzaizkion aipagarri iruditu. Ondoko mendeetan sendotuko zen inguru hartan mahastizaintza, eta horren lekuko dira Donibane Garaziko Zubi Buruko Andere Mariaren elizaren¹⁹ atariko zutabeetan zizelkaturiko mahats-mulkoak, bizkarrean saskia omen duen mahats-biltzailearen ondoan: XIII. mendean eraikiarazi zuen Antso Azkarrak eliza, baina dirudienez XIV.-XV. mendean gehitua da atari zutabedun hori (Auñamendi, s. v. *Donibane Garazi*).

Barnealdeko berri horiek gorabehera, mahastiak ere zabaldu omen ziren XII. eta XIII. mendeetan Baiona inguruan bertan²⁰. Horko sagasti eta mahastien berri xehea

17 Erabat euskal lurraldeetan sartu baino lehen, interesgarria da zeharkatu bide zituen beste eskualdeez esaten dituenak gogoratzea: «Bordeleko lurraldea, ardo bikain eta arrain ugarikoa» omen da, Bordeleko Landak, berriz, «ogirik, ardorik, haragirik, arrainik, urik eta iturririk gabea», eta Gaskoinia «ogi zuri eta ardo beltz bikain ugarikoa» (Bilbao, 1994, 68.-69. or.).

18 Mitxelenak *Ardanz* (*DocLeire* 1093) ere *Ardantza*-rekin batera dakar (1973, 52. or.). Bukaerako *-atz* azaltzeko, aukera bat da *hatz* ikustea bertan, 'hazi' adieraren bidez edo.

19 Hola itzuli dugu frantsesezko *église Notre Dame du Bout du Pont* eta gaztelaniazko *iglesia de Santa María del Puente* izenekin irakurri duguna.

20 XIII. mendean badugu, bestalde, Ingalaterrarako esportazioaren berririk, Aturritik beheiti heldu zen ardoarena (Dion, 1959, 353. or., 379.-381. or., 430. or.). Interesgarria da, halaber, Iruñeko gizaseme bati buruz dakarren berria: Mantxako eta Ipar itsasoko uretan zebilen haren jabetzako itsasontzi bat, 120 ardo upelekin kargatuta.

ematen digu Goyhenechek (1949/1990, 128.-134. or.), *Livre d'Or* ezaguna iturri hartuta: Baionako Elizaren ondasunez ari dela, 1083ko sagasti-emaitzen berri biltzen du, adibidez, eta baita 1198ko lurren inbentarioko hainbat sagasti aipatzen ere, Baiona bertakoak –Errobi ingurukoak, esaterako–, baina baita Angelu, Urruña, Gixune eta are Amaiurkoak ere; bestalde, 1188ko agiri baten berri ere badakar, zeinetan sotoko upelak nola banatu –zenbat apezpikuarentzat, zenbat kalonjeentzat– zehazten baitzen. Saint-Bernard, Saint-Esprit eta Saint-Étienne auzoetan aurki zitezkeen mahastiak, besteak beste, eta Saint-Léon auzo inguruan 1266an bizi ziren mahastizainen berri ere ematen digu. Ekoizpena urria bide zen eta tokiko kontsumora bideratua batez ere (Bé-riac, 1991, 38.-39. or.).

Ildo horretatik, Goyhenechek nabarmentzen du (1949/1990, 116. or.), Sordeko abadiak XI.-XII. mendeetan jasotzen zituen errenten berri ematean, diru-iturri nagusietako bat sagardoa zela, eta ardoa askoz urriagoa zela²¹; euskal lurraldeetan, Gixuneko, Baigorriko eta Garrüzeko ardoa aipatzen du. Zehaztapen gehigarrietarako, ik. halaber Orpustan (2006, 2.-3. or.).

Nafarroa Garaian, berriz, ugariak dira mahastien aipamenak X. mendetik aurrerako dokumentazioan: Jusuék dioenez (2016, 208. or.), 200 inguru dira mahastiak dituzten herri edo herrixkak Iruñerrian, Lizarrerriko mendebaldean eta Agoitz-Irunberriko lurraldeetan; Leireko eta Iratxeko monasterioetako agiriak ditu iturri nagusi, X.-XI. mendeetako adibideak aipatuz.

Panorama orokor honetan azaldu daiteke Picaudek zirriborratzen zuen egoera, atal honen hasieran aipatu duguna.

9.4.3. Euskal eremuko beste lurraldeak

Arabar Errioxan, gaur ardo ekoizpenarengatik ezaguna izanagatik, Goi Erdi Aroan batik bat laborea ekoizten zela esaten digu Quirósek (2020, 214. or.). Badugu, ordea, Araban bertan, garai horretako ardogintzaren berririk: Aiaraldean, gaur egun ere ekoizle den eskualde batean, sagastiekin batera mahastiak daude Artziniegako eliza bati egindako emaitza bateko ondasunen artean (*CartValp* 864).

Beste euskal lurralde batzuk ere (Bizkai-Gipuzkoetako kostaldea eta barneko ibarrak, esaterako) aparte xamar zeuden Donejakue bidearen inguruan egituraturiko monasterio handiek osatzen zuten ardatzetik, eta, ondorioz, baita haiei loturiko ekonomia modutik –mahastizaintzatik– ere. Sagastizabalek eta Gonzálezek (1996, 238.-239. or.) diotenaren arabera, sagastiak –eta sagardoa– ziren inguru horietan jaun eta jabe, XI., XII. eta are XIV. mendeetan ere.

21 Goyhenechek ematen dituen neurrien arabera, 24.458 litrokoa zen sagardoaren ekoizpena eta 1.472koa ardoarena (ez dugu ondorioztatu ahal izan ekoizpen kopuru horiek zein denbora tarteri dagozkion).

9.5. Erdi Aroko mahastizaintza eta hitzaren mailegaketa

Eman ditugun datuen arabera (§ 9.3), ez dirudi Antzinatean euskal lurraldeak ardoaren produkzio-gune handia izan zirenik, ez eta mahastizaintza modu erabat zabalduan eta orokortuan praktikatzen zenik ere: antzinako baskoien lurraldeetan, Nafarroan baditugu *villae* batzuk ardo ekoizten zutenak, baina Oiassoko datuek ez digute hori ziurtatzen uzten, eta euskal Akitanian ere Garonatik zenbat eta hegoalderago jo zailagoa da jardun horren aztarnak aurkitzea.

Erdi Aroan orokortu zen ardogintza euskal lurralde zenbaitetan, eta monasterioek Donejakue bidea ardatz hartuta saretutako ekonomia berri horri loturik ageri da mahastien ugaritzea eta finkatzea: gure ustez, testuinguru horretan kokatu behar da *banasta* → *mahats* mailegaketa.

Mailegaketa hori ongi oinarritua dago hala ardatz kronologikoan nola geografikoan. Kronologikoan, ekonomia modu horren indartzeak bat egiten duelako jatorri hizkuntzetan *banasta*-ren erabileraz bildu ditugun lekukotzekin, eta, era berean, garai hori ongi ezkon daitekeelako euskararen barrenean hitzak izan duen eboluzio fonetiko zein dialektalarekin. Geografikoki, aipaturiko ardatz ekonomiko horrek bat egiten duelako euskal lurraldeen ekialdearekin, eta jatorri hizkuntzen eremuak ere (dela gaskoia, dela nafar erromantzea) inguru horretan berean kokatzen direlako.

Ororen buru, artikulu honetan garatu dugun argudiobideak Sagastizabalek eta Gonzálezek euskal hitzen etimologiatik ondorioztatzen zutenaz aski bestelako egoera irudikatu du, eta ez dirudi, inolaz ere, euskal lurraldeetako lehen biztanleek delako «realidad vitivinícola incipiente» hori (ikus *§ 9*) ezagutuko zutenik. Ondoko puntuetan laburbil daitezke euskal hitzen etimologiek ardogintzaren historiarekin izan lezaketen lotura argitzeko oinarriak:

- a) Itxura guztien arabera, *ardo*-ren esanahi etimologikoa zabalagoa da, orokorragoa, ‘edari hartzitu’ edo, ez ‘mahatsaren zuku alkoholdu’.
- b) Ardogintzari loturiko mailegua da *mahats* bera, eta Erdi Aroko kronologia du; ez da, bestela esateko, fruitu izen beregain bat, industria jakin bati loturikoa baizik.
- c) Euskara da historikoki ‘ardo’ adierazteko **yih₁-on-o-* erroko hitzik dokumentatuta ez duen hizkuntza bakarra Mediterraneo arko hizkuntzen artean, Europa Mendebalde osokoak barne.
- d) *Ardantze* hitzean bertan ere, ez zaio mahatsari egiten erreferentzia, produktuari baino: ardoak du axola, ez mahatsak²². Ezinbestean, beraz, euskaldunek ardogintza ezagutu ondotikoa behar du hitzak.

22 Hizkuntza erromantzeetan bezala, bide batez, gazt. *viña*, fr. *vigne* formek latinezko *vinea* ‘ardozko, ardoari dagokiona’ adjektiboan baitute jatorria, zeina *vinus* ‘ardo’-ren eratorria baita.

- e) Horretaz gain, ohar bedi *ardantzalardantze* aldaeretan ikusten dugun *-tzal-tze* txandakatzea Erdi Arokoa izan daitekeela, aldaera dialektalek ordutik aurrerakoak behar dutela onartzen badugu²³, eta Mitxelenak (1954a, 444.-446. or.) esandakoari jarraitzen badiogu elkartu-eratorrietako *ardan-* formak ere ezin due-la izan akitanieraren garaikoa, Erdi Arokoa baizik.
- f) Ardogintzari loturiko beste mailegu bat ere, *muztio*, Erdi Arokoa izan daitekeela argudiatu dugu.

Funtsean, bi gako daude eztabaida honetan: *ardo* ondare zaharreko hitza da, eta *mahats*, aldiz, mailegua. Zehazteko dago ea zein testuinguru historikotan ulertu behar diren bi gako horiek. *Mahats*-en mailegaketaren gorabehera historikoak aletuak ditugu lehenago ere, eta orain *ardo*-ren izaera lexiko bereizgarri hori historian kokatuko dugu.

Hasteko, gogorarazi beharra dago euskaldunek lehenago ezagutuko zutela ardoa, edaria, mahastizaintzaren kultura baino. Eta, era berean, gogoan hartzekoa da erlatiboki berantiarra izango zela ardoaren garrantzia euskaldunen artean. Aztertu ditugun bi garaiak erkatuta, Antzinatea eta Erdi Aroa, ondorioztatu dugu bigarrenan abiatu zela ardoaren benetako arrakasta eta orokortzea euskal lurraldeetan, bertako produktzioa ere ohiko bihurtzarekin batera. Hau aintzat harturik, ongi uler daiteke euskara hizkuntza mediterraneoetako erro partekatuaren eremu zabal horretatik kanpo geratu izana: euskaldunek ardoaren kulturarekiko lehen kontaktua erromatarren bidez Antzinatean izan bazuten ere²⁴, garrantzi handiagoa zuketzen haien kulturaren bestelako edariek, eta pentsatzekoa da ardoak ez ziela berehala tokia kendu.

Arrazoi edo gogoetabide kultural horretan urrutiago jo nahi izanez gero, ahantzi gabe datu urrietatik ondorio gehiegizkoak ateratzeko arriskua hor dagoela betiere, beste ohar bat ere egin genezake, historiak hizkuntzan izan lezakeen islari dagokiona, nabarmenduz euskara erromatarren iritsiera aurreko egoeratik iraun duen hizkuntza bakarra den heinean, hari «egokitu» zaiola erromatar aurreko kulturaren aztarnen gordeleku zeharkako izatea ere: egoera bat zeinetan Iberiar penintsulan eta mendebaldeko Galian –euskaldunen lurralde atlantiar-piriniotarra barne– ez zegoen ez ardorik ez haren ekoizpena bideraturiko mahastizaintzarik, Diodoro Siziliakoak deskribatutakoarekin bat.

Panorama historiko orokor hau aintzat harturik, zehaztu ere zehaztu dezakegu noiz gertatu zen ‘edozein edari hartitu’ → ‘ardo’ bilakaera semantikoa *ardo* formarentzat: ondoriozta daiteke aski berandu arte iraun duela *ardo*-ren ‘edari hartitu’ adiera orokorrak, bertako ardogintza erabat errotu eta Erdi Aroan ‘mahatsaren

23 Ikusi Manterola (2015, 191.-195. or.), atzizki honen berreraiketan dauden arazo zenbaitetarako.

24 Ikusteko legoke, gainera, zenbateraino hitz egingo zuten euskaraz Antzinateko Nafarroako hiritar erromatar horiek, Arellanoko eta Ledeaiko *villae*-takoek, adibidez. Zaila da zehaztea kulturalki erabat erromatar ziratekeen pertsona horiek –jainko erromatarrak gurtzen zituzten, besteak beste– zein neurritan arituko ziren bere egunerokoan latinaz besteko hizkuntzaren batean.

zuku hartzitu' adieran espezializatu zen garaira arte. Bi adierak elkarren ondoan iraun ahal izan zuten, jakina. *Ante quem* data moduan, XI. mendea jarri beharrean gaude, ordukoa baitugu *Ardanaz* (ik. § 9.4.2), eta toponimo horretan jadanik 'ardo' baitugu, ziur asko.

10. AZKEN GOGOETA: «UVA VASCONICE»

Erantzun gabe geratzen zaigu galdera ageriko bat, alegia, euskaldunek mahatsa nola izendatzen ote zuten *mahats* mailegatu baino lehen. Hizkuntza galo-erromantzeetan eta katalanez, badakigu gaurko *raisin*, (*ar*)*rasim* eta *raim* modukoek latinetiko *uva* ordezkatu dutela (FEW 14, 90b, ŪVA); baina, euskaraz, zer ordezkatu zuen *mahats*-ek, ezer ordezkatu bazuen?

Brontze Aroko basamahatsa (*vitis vinifera sylvestris*) hainbat euskal lurraldetan zabaltzen zen (Zohary, Hopf & Weiss, 2012, 123. or.) eta XXI. mendean ere badira basamahatsak euskal lurralde moderno guztietan (Ocete et al., 2004, 103.-131. or.); pentsatzekoa da, beraz, euskal lurraldeetako biztanleek –penintsulakoek zein gaurko Akitania kostaldekoek– ezagutzen zutela fruitu hori, ardogintza erromatarren eskutik iritsi baino lehen ere.

Argudia zitekeen **ardano* bera erabili zela noizbait fruitua adierazteko –fruitua eta harenganik lortzen den ekoizkina hitz berarekin adieraztea ez da harritzekoa, cf. *ogi* 'gari', 'ogi'–, baina ohar bedi 'edari hartzitu' orokorra bide duela berezko esanahia, ez bakarrik mahatsarekin egindakoa. Eta izendapen horrek, nolnahi ere, ardogintza sartu ondotikoa behar du, ezinbestean. Ez dakigu lehenago, mahastizaintzarik eta ardogintzarik gabeko garaietan, nola deituko zitzaion basamahatsari.

Erabat maila espekulatiboan, aukera bat izan liteke pentsatzea *aran*-ek balio generikoa izan zuela inoiz, eta tartean mahatsa ere izendatzeko erabili zela: gogoan har bitez *aran*-ek eta haren eratorriek izan dituzten esanahiaren espezializazioak, hala nola zenbait hizkeratako *okaran* 'aran' (*prunus domestica*) eta *aran* 'basakaran' (elorri beltzaren fruitua, *prunus spinosa*) bikoteak erakusten duena (OEH s. v. *aran*); orobatsu Izagirrek Oñatin bildutako *adángarratzak* [*aran* + *garratz*] 'basakaran' eta Azkuek jasotako *aragarratz* «agraz», zeinak gaztelaniazko ordainaren arabera mahatsa izenda lezakeen ('mahats ez umo' edo 'fruitu ondugabe' da *agraz*-en itzulpena DLeren arabera). Mirakuluzko aurkikuntza testualik gertatu ezean, erantzunik gabe iraungo du naski auzi honek.

11. ERREFERENTZIAK

- Agud, M. (1983). El nombre del *vino* en vascuence. *ASJU*, 17, 25-39.
 Agud, M. & Tovar, A. (1988-1994). *Diccionario etimológico vasco* (ASJUren gehigarriak, 13, 19, 24, 26, 30, 33, 37). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
 Alibert, L. (1966). *Dictionnaire occitan-français d'après les parlers languedociens*. Toluosa: Institut d'Études Occitanes.

- Altube, S. (1923). De fonética vasca. *RIEV*, 14(1), 517-534.
- Aragonario = Linguatéc. (2020). *Aragonario. Diccionario castellano-aragonés*. Gobierno de Aragón. <https://aragonario.aragon.es/> helbidetik eskuratua.
- Ariztimuño, B. (2018). SENI eta LOHI (sudurkari galduaren bila). *ASJU*, 52(1-2), 19-31.
- Ariztimuño, B. & Egurtzegi, A. (2011). Enarak, elaiak eta testuinguruaren garrantzia. *ASJU*, 45(1), 403-410. <https://doi.org/10.1387/asju.20191>
- Auñamendi = Estornés, B. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. Eusko Ikaskuntza & Bernardo Estornés Lasa Funtsa. <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus> helbidetik eskuratua.
- Azkue, R. M. de. (1923-1925). *Morfología Vasca*. Donostia: Sendoa & Euskaltzaindia.
- Bakker, P. (2020). Review. *Advances in Proto-Basque Reconstruction with Evidence for the Proto-Indo-European-Euskarian Hypothesis*, Blevins, Juliette. 2018. *FLV*, 130, 563-594. <https://doi.org/10.35462/flv.130.8>
- Balmelle, C., Barraud, D., Brun, J.-P., Duprat, B., Gaillard, H., Jacques, Ph., Maurin, L., Petit-Aupert, C., Rigal, D., Robin, K., Roudié, Ph., Sillières, P. & Vernou, Ch. (2001). La viticulture antique en Aquitaine. *Gallia*, 58, 129-164. <https://doi.org/10.3406/galia.2001.3177>
- Barbazan, L. (1990). *Vignobles et vins des Pyrénées, de Gascogne et des Landes*. Paue: J.-C. Bihet.
- Beekes, R. (2010). *Etymological Dictionary of Greek*. Leiden & Boston: Brill.
- Beltrán Lloris, M. (2007). Las ánforas tarraconenses en el valle del Ebro y la parte occidental de la provincia tarraconense. In A. López Mullor & J. Aquilué Abadías (arg.), *La producció i el comerç de les àmfores de la «Provincia Hispania Tarraconensis»*. *Homenatge a Ricard Pascual i Guasch* (Monografies, 8) (271.-317. or.). Bartzelona: Museu d'Arqueologia de Catalunya.
- Bériac, F. (1991). Bayonne au Moyen Âge. In J. Pontet (arg.), *Histoire de Bayonne* (27.-74. or.). Toulouse: Privat.
- Berthault, M. F. (2000). *Aux origines du vignoble bordelais: il y a 2000 ans, le vin à Bordeaux*. Bordele: Éditions Féret.
- Bilbao, G. (1994). XII. mendeko Euskal Herria Santiago bidean: *Liber Sancti Iacobi V*, 7. *Uztaro*, 10, 61-84.
- Blevins, J. (2018). *Advances in Proto-Basque reconstruction with evidence for the Proto-Indo-European-Euskarian hypothesis*. New York: Routledge. <https://doi.org/10.4324/9780429505911-11>
- Blevins, J. & Egurtzegi, A. (2013). Advances in proto-Basque reconstruction. Extensions of the CVC Root Theory. *International Conference of Historical Linguistics 21 (August 5-9, 2013)*, Oslo (Norvegia) aurkeztutako lanaren eskuorria.
- Bouda, K. (1949). Remarques sur les consonnes épenthétiques. *Eusko-Jakintza*, 3, 325-332.
- Bouda, K. & Baumgartl, D. (1955). Nombres vascos de las plantas. *Acta Salmanticensia*, 7(3), 3-80.
- Böhm, J. (2011). *Atlas das Castas da Península Ibérica: história, terroir, ampelografia*. Lisboa: Dinalivro.
- Brun, J.-P. (2011). La viticulture en Gaule tempérée. *Gallia. Archéologie de la France antique* (M. Poux, J.-P. Brun & M.-L. Hervé-Monteil [arg.], *La vigne et*

- le vin dans les Trois Gaules*), 68(1), 1-12. <https://hal.archives-ouvertes.fr/hal-01929172> helbidetik eskuratua.
- Buck, C. D. (1949). *A dictionary of selected synonyms in the principal indo-european languages: a contribution to the history of ideas*. Chicago: University of Chicago Press.
- Campion, A. (1898). Celtas, íberos y éuskaros. Capítulo IV. *Euskal-Erria*, 39, 385-391.
- Castro Guisasola, F. (1944). *El enigma del vascuence ante las lenguas indeuropeas* (Revista de Filología Española, anejo 30). Madril: CSIC.
- Celestino, S. & Blánquez, J. (2007). Origen y desarrollo del cultivo del vino en el Mediterráneo: la península Ibérica. *Universum*, 22(1), 32-60. <http://dx.doi.org/10.4067/S0718-23762007000100004>
- Chambon, J.-P. & Greub, Y. (2002). Note sur l'âge du (proto)gascon. *Revue de Linguistique Romane*, 66, 473-495.
- Charencey, H. de. (1869). Recherches sur les noms d'animaux domestiques, de plantes cultivées et de métaux chez les basques et les origines de la civilisation européenne. *Actes de la Société Philologique Paris*, 1, 1-28.
- Charencey, H. de. (1908). Neuf Étymologies Basques. *RIEV*, 2(4), 660-666.
- Cierbide, R. (2013). El chacolí en el País Vasco y alrededores. Bosquejo histórico y otras consideraciones. UPV/EHU. <http://hdl.handle.net/10810/13933> helbidetik eskuratua.
- CORDE = Real Academia Española. (s. d.). *Corpus diacrónico del español. Banco de datos (en línea)*. Madril: RAE. <http://corpus.rae.es/cordenet.html> helbidetik eskuratua.
- DAF = Académie Française. *Dictionnaire de l'Académie Française*. Académie Française, CNRS, ATILF & Université de Lorraine. <https://academie.atilf.fr/> helbidetik eskuratua.
- DCECH = Corominas, J. & Pascual, J. A. (1980-1991). *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. Madril: Gredos.
- DCVB = Alcover, A. M. & Moll F. de B. (1926-1962/2001-2002, 2018). *Diccionari català-valencià-balear*. Institut d'Estudis Catalans & Institució Francesc de Borja Moll. <https://dcvb.iec.cat/> helbidetik eskuratua.
- Dern, O. (1996). Vino, viñas y Camino de Santiago. Iconografía de la región de Burdeos. In J. Santos (arg.), *La Rioja, el vino y el Camino de Santiago. Actas del I Congreso Internacional de la Historia y Cultura de la Vid y el Vino. Labastida, Rioja Alavesa, 28 y 29 de septiembre de 1994* (329.-340. or.). Gasteiz: Sancho el Sabio Fundazioa.
- Diodoro Siziliakoa. (2004). *Biblioteca histórica. Libros IV-VIII* (Biblioteca Clásica Gredos, 328). Madril: Gredos.
- Dion, R. (1959). *Histoire de la vigne et du vin en France. Des origines au XIX^e siècle*. Paris: Egilearenean.
- DLE = Real Academia Española. (2014). *Diccionario de la Lengua Española*. Madril: RAE. <http://dle.rae.es/> helbidetik eskuratua.
- EHHA = Aurrekoetxea, G. & Videgain, X. (ard.) (2017). *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* (8. libk). Bilbo: Euskaltzaindia.
- EHHE = Lakarra, J. A., Manterola, J. & Seguro, I. (2019). *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

- EKC = Euskararen Institutua. (2013). *Euskal Klasikoen Corpora*. UPV/EHU. <https://www.ehu.eus/ehg/kc/helbidetik/eskuratua>.
- Ernout, A. & Meillet, A. (1932). *Dictionnaire étymologique de la langue latine. Histoire des mots*. Paris: Klincksieck.
- FEW = Wartburg, W. von et al. (1922-2002). *Französisches Etymologisches Wörterbuch. Eine Darstellung des galloromanischen Sprachschatzes*. Bonn, Heidelberg, Leipzig-Berlin & Bäle: Klopp, Winter, Teubner & Zbinden.
- FHV = Mitxelena, K. (1961-1977/1990). *Fonética histórica vasca* (ASJUren gehigarriak, 4). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Giacomino, C. (1891). *Delle relazioni tra il basco e l'antico egizio*. Milan: Tip. Bernardoni di C. Rebeschini e C.
- Gilisasti, I. (2003). *Urduliz aldeko berba lapikokoa*. Bilbo: Uribe-Kostako Zerbitzu Mankomunitatea.
- Gregorio Tourskoa. (1951). *Libri historiarum X*. B. Krusch & W. Levison (arg.) (*Monumenta Germaniae Historica. Scriptorum rerum Merovingicarum, tomi 1, pars 1*). Hannover: Impensis Bibliopolii Hahniani. <https://www.dmg.de/helbidetik/eskuratua>.
- Gorrotxategi, J. (1984). *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*. Bilbo: UPV/EHU.
- Gorton, L. (2017). Revisiting Indo-European 'Wine'. *The Journal of Indo-European Studies*, 45(1-2), 1-26.
- Goyheneche, E. (1949/1990). *Bayonne et la région Bayonnaise du XII^e au XV^e siècle*. Salamanca: UPV/EHU.
- Hualde, J. I. (1993). Topics in Souletin Phonology. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics* (289.-327. or.). Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins. <https://doi.org/10.1075/cilt.105.12hua>
- Hualde, J. I. (2015). Dialektologia dinamikoa. In I. Epelde (arg.), *Euskal hizkera eta dialektoak gaur egun* (Lapurdumen ale bereziak, 3) (125.-153. or.). Baiona: IKER. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.2656>
- Hualde, J. I. & Bilbao, X. (1992). *A phonological study of the Basque dialect of Getxo*. (ASJUren gehigarriak, 29). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Hualde, J. I., Elordieta, G. & Elordieta, A. (1994). *The Basque dialect of Lekeitio*. (ASJUren gehigarriak, 34). Bilbo & Donostia: UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Jusué, C. (2016). Notas sobre el cultivo de la vid y producción de vino en Navarra. El «agraz-verjus», un producto de vinificación. *Boletín Arkeolan* (M. Urteaga [arg.], *Periferias: estudios dedicados a Jaime Rodríguez Salís*), 18, 205-216.
- La Chaussée, F. de (1989). *Initiation à la phonétique historique de l'ancien français. Nouvelle édition revue et augmentée*. Paris: Klincksieck.
- Lakarra, J. A. (2005). Zemai Abagadaune. In P. Etxeberria & H. Knörr (arg.), *Nerekin yaio nun: Txillardegiri omenaldia* (339.-351. or.). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lakarra, J. A. (2013). Euskararen historiaurrearen berreraiketa sakonagorako: forma kanonikoa, tipologia holistikoa, kronologia eta gramatikalizazioa. In R. Gómez, J. Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra* (275.-324. or.). Gasteiz: UPV/EHU.

- Larramendi, M. (1745). *Diccionario Trilingüe del castellano, bascuence y latín*. Donostia: Bartholome Riesgo y Montero.
- Larrasquet, J. (1939). *Le Basque de la Basse-Soule orientale*. Paris: Klincksieck.
- Lespy, J.-D. & Raymond, P. (1887). *Dictionnaire béarnais ancien et moderne*. Montpellier: Hamelin Frères.
- Lhande, P. (1926). *Dictionnaire Basque-Français et Français-Basque*. Paris: Gabriel Beauchesne.
- Linschmann, T. & Schuchardt, H. (arg.). (1900/1990). *Leizarragas baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Löpelmann, M. (1968). *Etymologisches Wörterbuch der baskischen Sprache*. Berlin: Walter de Gruyter.
- Lujanbio, O. (2013/2018). Goizuetako azentu-hiztegia. *ASJU*, 47(2), 1-86. <https://doi.org/10.1387/asju.18678>
- Manterola, J. (2015). *Euskararen morfologia historikorako: artikulua eta erakusleak* (doktore-tesia, UPV/EHU). <http://hdl.handle.net/10810/15848> helbidetik eskuratua.
- Manterola, J. (2020). Aportaciones del vasco medieval a la reconstrucción del léxico protorromance. *Zeitschrift für romanische Philologie*, 136(3), 625-657. <https://doi.org/10.1515/zrp-2020-0034>
- Marca, P. de. (1640). *Histoire de Béarn, contenant l'origine des rois de Navarre, des Ducs de Gascogne, Marquis de Gothie, Princes de Béarn, Comtes de Carcassone, de Foix, et de Bigorre*. Paris: Iean Camusat.
- Mezquíriz, M. Á. (1995-1996). La producción de vino en época romana a través de los hallazgos en territorio navarro. *Trabajos de Arqueología Navarra*, 12, 63-89.
- Mitxelena, K. (1950a). De etimología vasca. *Emerita*, 18, 193-203.
- Mitxelena, K. (1950b). De fonética vasca. La aspiración intervocálica. *BAP*, 6, 443-459.
- Mitxelena, K. (1954a). De onomástica aquitana. *Pirineos*, 10, 409-455.
- Mitxelena, K. (1954b). La posición fonética del dialecto vasco del Roncal. *Via Domitia*, 1, 123-157.
- Mitxelena, K. (1957). Las antiguas consonantes vascas. In *Miscelánea homenaje a André Martinet, I* (113.-157. or.). Kanariak: Universidad de La Laguna.
- Mitxelena, K. (1968). Lat. s: el testimonio vasco. In A. Quilis, R. Blanco & M. Cantarero (arg.), *Actas del XI Congreso Internacional de Lingüística y Filología Románicas, vol. 2, Madrid 1965* (473.-489. or.). Madrid: Revista de Filología Española.
- Mitxelena, K. (1971). Notas sobre las lenguas de la Navarra medieval. In *Homenaje a don José Esteban Uranga* (199.-214. or.). Iruña: Aranzadi.
- Mitxelena, K. (1973). *Apellidos vascos*. Donostia: Txertoa.
- Mitxelena, K. (1974). El elemento latino-románico en la lengua vasca. *FLV*, 6, 183-209.
- Mitxelena, K. (1981). Lengua común y dialectos vascos. *ASJU*, 15, 291-313.
- NTLLE = Real Academia Española (s. d.). *Nuevo Tesoro Lexicográfico de la Lengua Española*. Madrid. <http://ntlle.rae.es/ntlle/SrvltGUILoginNtlle> helbidetik eskuratua.
- OEH = Mitxelena, K. (1987-2005). *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.

- Ocete, R., López, M. Á., Gallardo, A., Arnold, C., Pérez, M. Á. & Rubio, I. M. (2004). *Euskal Herriko eta inguruetako basamahatsondoa: ekologia, kokapena eta arriskuak* (Biodibertsitatea, 3). Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Orpustan, J.-B. (2006). La toponymie médiévale basque de la vigne en Basse-Navarre et pays environnants. Université Bordeaux Montaigne. <https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00081605> helbidetik eskuratua.
- Palay, S. (1980). *Dictionnaire du Béarnais et du Gascon modernes*. Paris: CNRS.
- Pérez, F. P. (2003). *Euskal Herriko zubaitzak*. Bilbo: ADEVE.
- Quirós, J. A. (2020). Archaeology of early medieval peasantry in the Basque Country: Landscapes, economic trends and societal change in Álava. *Historia Agraria*, 82, 209-243. <https://doi.org/10.26882/histagrar.082e04q>
- Ruiz, M. & Zapata, L. (2009). Macrorrestos vegetales de Santa María la Real de Zaurutz (País Vasco): cultivos y bosques en época romana y altomedieval. *Munibe*. Gehigarria 27, 132-151.
- Sagastizabal, K. & González, M. (1996). Historia de la vitivinicultura en el País Vasco Atlántico. In J. Santos (arg.), *La Rioja, el vino y el Camino de Santiago. Actas del I Congreso Internacional de la Historia y Cultura de la Vid y el Vino. Labastida, Rioja Alavesa, 28 y 29 de septiembre de 1994* (235.-251. or.). Gasteiz: Sancho el Sabio Fundazioa.
- Salas, A. J. de (1999). *La peregrinación sabia*. Alacant: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes. <http://www.cervantesvirtual.com/nd/ark:/59851/bmcf47k2> helbidetik eskuratua.
- Santos, J. (1996). Los romanos y el vino en el Valle del Ebro. In J. Santos (arg.), *La Rioja, el vino y el Camino de Santiago. Actas del I Congreso Internacional de la Historia y Cultura de la Vid y el Vino. Labastida, Rioja Alavesa, 28 y 29 de septiembre de 1994* (37.-59. or.). Gasteiz: Sancho el Sabio Fundazioa.
- Schuchardt, H. (1899). Zum Iberischen, Romano-baskischen, Ibero-romanischen. *Zeitschrift für romanische Philologie*, 23, 174-200. <https://doi.org/10.1515/zrph.1899.23.1-4.174>
- TAV = Mitxelena, K. (1964/1990). *Textos arcaicos vascos* (ASJuren gehigarriak, 11). Donostia: UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia.
- TLF = Imbs, P. & Quemada, B. (zuz.). (1971-1994). *Trésor de la langue française. Dictionnaire de la langue du XIXe et du XXe siècle (1789-1960)*. Paris: Éditions du CNRS & Gallimard.
- Zapata, L. (2002). *Origen de la agricultura en el País Vasco y transformaciones en el paisaje: análisis de restos vegetales arqueológicos*. (Kobie, anejo 4). Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- Zohary, D., Hopf, M. & Weiss, E. (2012). *Domestication of plants in the Old World*. 4th edition. Oxford: Oxford University Press.